guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA
2021-12-17 OSTIRALA / 799. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Ur kolpea

Ostiraleko uholdeek arrastoa utzi zuten Sakana guztian / 6-9

Hasi berri diren Dorraoko araztegiko lanak maiatzerako despedituko dira / 5

Larunbatean Sakanako Xake Txapelketa jokatuko da Iturmendiko udaletxean / 17

Castillo Suarezek 'Elurra elurraren gainean' liburu "berezia" kaleratu du / 21

Parte hartze aurrekontuetan olaztiarrek 18 aukeren artean erabaki behar dute / 12

Sakanako kirolari hoberenek aitortza jasoko dute gaur, ostirala, Olaztin / 18-19

Toureren zortzigarrena aurkeztu du Arbizun bizi den Jon Arretxek / 23

Aintzane Diaz Mazkiaran, ikerlaria EHUn. UTZITAKOA

"Konturatu gara ikerkuntza itxaropena eta etorkizuna dela"

AINTZANE DIAZ MAZKIARAN IKERLARIA

Nafarroako Gobernuak hamar beka eskaini ditu doktorego tesien ikerkuntzarako. Horietako bat berak jaso du: "sorpresa ikaragarri bezain garrantzitsua dela" dio

Aitziber Grados Munoa ALTSASU

Sei urte daramatza biomedikuntza alorreko ikasketak gauzatzen. Euskal Herriko Unibertsitatean lehenengo; biokimika eta biologia molekularra gradua egin zuen. Gero Bartzelonako Unibertsitatera joan eta bidea han jarraitu zuen Ikerkuntza biomedikoko masterra egiten. Bertan onkologian espezializatu eta gero, Nafarroako Unibertsitatean; Medikuntza aplikatua eta biomedikuntza doktoretza hasi zuen, duela urtebete. Geroztik, horretan dabil, CIMA ikerketa taldean odol minbizia ikertzen. Hain zuzen, bere doktorego tesia pertsona helduek pairatzen duten "leuzemia mota" baten inguruko analisian oinarritzen da, eta azken horrengatik Nafarroako Gobernuak eskainitako beka jaso berri du.

Sei urte biomedikuntza ikasketetan, erraz esaten da. Atzera begiratuta, zerk eraman zintuen eremu honetan hastera?

Biologia beti gustatu izan zait. Batxilergoko bigarren mailan biologiak neure buruan zebilen hainbat galdera erantzuten zituela konturatu nintzen eta argi neukan bide horretatik jarraitu nahi nuela. Institutuko hainbat irakaslek nire etorkizuna ikerketaren esparrura bideratzeko gomendatzen zidaten, etorkizun handia daukan eremua omen zelako. Ahalegin eta lan handia egin nuen unibertsitate publikora sartu ahal izateko. Nota oso altua eskatzen zuten, baina asko ikasi ondoren Euskal Herriko Unibertsitatean sartzea lortu nuen Biokimika gradua egitera. Erronka handia izan zen niretako; ez baineukan argi zer ikasiko nuen bertan. Ez nintzen batere kontziente. Karrerako hirugarren mailan Arkaitz Carracedo irakasleari esker onkologiaren arloa ikertzeko grina piztu zitzaidan. Baina, egia esan, banekien zein zen karrera horretan sartzearen helburua: ikerkuntza talde batean lan egitea gaixotasunak eta abar ikasteko.

Unibertsitatean argi zenuena, orain-dik bere horretan mantentzen da: gaixotasunen inguruan ikertu nahi izatea. Horretan ari zara Nafarroako Unibertsitateko doktoretzan, minbizi jakin baten inguruko tesia lantzen. Zer da ikertzen ari zarena?

Gure ikerketa taldeak, CIMAk, odol minbizia ikertzen du, leuzemia mota bat zehazki: leuzemia mieloide akutua. Leuzemia mota asko daude eta horietako bat hori da, pertsona helduek pairatzen dute eta biziraupen tasa baxuko gaixotasuna da. Gaur egun horrekin lotutako tratamendu gutxi daude. Gure helburua beraz, gaixotasuna hobeto ulertzea eta tratamendu zein baliabide berriak sortzea litzateke; gero medikuek paziente hauek tratatzeko tresna gehiago izan ditzaten.

Nola ulertu dezakegu Leuzemia mieloide akutua gaixotasuna? Nola jarduten du horrek pazientearen gorputzean?

Pazientearen gorputzean ematen den minbizi mota hori ulertzeko,

sindrome mielodisplasikoaren minbizia azaldu behar da. Sindrome horren ondorioz, pazienteen odol zelulek ez dute bere funtzioa ondo betetzen, egoera goiztiarrean geratzen baitira. Horregatik, atal guztietara oxigenoa garraiatzeaz arduratzen diren globulu gorriak, infekzioei aurre egiteko balio duten globulu zuriak eta plaketak; hiru odol zelula horien faltan daude sindrome hori pairatzen duten pazienteak; eta ondorioz, anemiak, infekzioekiko joera altua, odol jarioak eta abar sufritzen dituzte. Beraz, zein da gure helburua? Paziente horietan odol zelula horiek ez sortzearen arrazoia ezagutzea.

Esparru honen inguruan jakintzarik ez dugunoi zaila egiten zaigu horrelako gaiak guztiz konprenitzea, baina urrun harrapatzen gaituzten gaiak ere asko interesatzen zaizkigu, horretarako gaude. Nola egiten duzue zelulen analisi hori eta zer nolako prozesua da?

Pazienteen odol zelulak ez sortzearen motiboak ezagutzeko zelula prekurtsore edo aitzindari batzuetara jotzen dugu. Zer dira zelula aitzindariak? Aipatutako odol zelula horiek sortzen dituzten zelula amak dira. Aitzindari horietatik hain zuzen edozein zelula mota sor daiteke; bai globulu gorriak zein zuriak, adibidez. Gakoa zelula aitzindariak aztertzean datza, esan bezala globulu gorriak, zuriak eta plaketak zelula horietatik jaiotzen baitira. Eta sindrome mielodisplasiko egoeran odol zelulek ez dutenez ondo funtzionatzen, jatorrian dauden zelula ama horiek, hau da, aitzindariak analizatzea ezinbestekoa da. Jatorrizko zelula ama horietan dago arazoa; informazio genetikoan aldaketak jasaten dituztenean. Aldaketen ondorioz, odol zelulak (globulu gorriak, zuriak eta plaketak) ez dira ondo sortzen. Behin identifikatuta pazienteen zelula aitzindarietan aldaketak ematen direla, beharrezko tresnak sortuko ditugu hala gerta ez dadin. Zelulen informazio genetikoan aldaketak ekidin lehen aipatutako pazienteen sintoma horiek ekiditeko.

Konponbide hori topatzeko, nola egiten duzue lan?

Analisia konputazionalki egiten da, ordenagailu baten bitartez. Niretako guztiz berria den alderdia da, orain arte nire ikasketak biologikoak izan baitira. Biologia konputazionala deritzona ordenagailuaren bitartez datu kantitate handi batetik informazio biologikoa ateratzean datza; guri interesatzen zaigun informazioa zehazki. Hori egitea ahalbidetzen digute ordenagailuek, algoritmoek eta oso metodo konplexuek. Datu kantitate handi horretatik, metodo estatistikoen bitartez, paziente osasuntsuen datuak eta paziente gaixoen datuak atera eta konparatzen ditugu. Horri esker, gure pazienteetan gaizki dauden geneak ikusi ditzakegu (gene hautagaiak deiturikoak). Gene hautagaiak gero biologikoki konprobatzen ditugu zeluletan zer nolako funtzioa daukaten ikusteko. Eta zeluletan probatzea ez da nahikoa, beraz, organismo bizidun batean probatzera jotzen dugu; arratoietan esaterako.

Urtebete daramazu hiru urterako tesia garatzen, nolakoa da egun bat doktoretzan?

Gora behera askokoa. Egun batean hasi naiteke oso ondo, gero ikusten dut emaitzak ez direla ateratzen eta behera etortzen naiz. Doktorego tesia oso prozesu gogorra da; gorabehera asko daude tartean. Nik urtebete daramat baina jada konturatu naiz emozionalki ondo ez bazaude oso zaila dela aurrera egitea. Lan ordu asko dira; ez bakarrik tesia garatzeko, bestetik klaseak eman behar dira unibertsitatean, master bateko irakasgai batzuk ere egiten ditut... gauza asko dira. Eskerrak nire kideak oso jatorrak direla eta asko laguntzen nautela. Alde horretatik, oso pozik nago, giro polita baitago. Zientzia oso frustragarria da; gauzak esperotako moduan ateratzen ez zaizkizunean haserretu egiten zara, baina ateratzen direnean... a ze motibazioa.

Lankideak aipatu dituzu... Odol minbiziaren inguruko CIMA ikerketa taldean zenbat zarete? Zer nolako harremana duzue nazioarteko unibertsitateekin?

Biologia konputazionalean orain lau doktoregai gaude. Ni, esaterako, onkologian oinarritutako biologia konputazionalean nago eta lankideak beste minbizi mota batzuen inguruan ikertzen, beste departamentu batzuetan. Bakoitzaren profila desberdina da. Nik lanean dihardudan proiektua atzerriko unibertsitateen artean hitzartuta dago. Nazioarteko proiektua da eta finantzazioa baita ere. Horrek ere tesian zehar atzerrian estantzia bat egitea ahalbidetzen digu; bertan aurrera eramaten diren tekniken inguruan ikasteko edota norberak bere ezagutzak atzerrira ere eramateko. Profesionalki eta pertsonalki esperientzia aberasgarria litzateke.

Zure profilak eta zure proiektuaren tesiak arrakasta izan dute. Hain zuzen Nafarroako Gobernuak eskainitako hamar beketako bat jaso baituzu. Oker ez banago, 96 beka eskaera egon ziren, eta hamar aukeratu zituzten. Zu horien artean...

Prozesua gogorra izan zen. Beka eskaeraren lehenengo atalean curriculuma, graduan lortutako bataz besteko nota eta lortutako merituak hartzen dira kontuan. Merituen barne sartzen dira hizkuntzak, aldizkari zientifikoetako argitalpenak, kongresuetara joatea eta abar. Nire kasuan pandemiak une kritiko batean harrapatu ninduen. Bartzelonako Unibertsitatean nengoen masterra egiten, IRB Barcelona ikerketa zentroan eta momentu aproposa zen publikazioren bat lortzeko; karreran zehar ez bainuen aukerarik izan. Baina ez zen posible izan. Horregatik, eta beka lortzeko kontuarekin loturik, pentsatzen nuen publikaziorik izan ezean ez zidatela beka emango eta ez nintzela lehenengo fasetik aurrera igaroko. Baina izan liteke beste hautagaiek arazo berdina izatea, zeren azkenean, ezustez, bigarren fasera igaro nintzen. Agian notak, hizkuntzak edukitzea, kongresuena... lagundu zidan, batek daki. Ez nuen batere espero. Bigarren fasean ordea nire tesi proiektua idatzi eta nire ikerketa taldearen informazioa pasa behar izan nuen. Egia esan, ikerketa taldea ona bada, fase honetan puntuazio gehiago edukitzeko aukera gehiago dituzu; eta nire kasuan, ikerketa taldea oso ona da. Azken bost urteetan hainbat publikazio zituen eta historial zientifikoa oso ona da. Horretaz aparte, nik aurkeztutako proiektua interesgarria iruditu zitzaien, eta beno, azkenean bigarren fasea igaro eta hamar horien artean sailkatu nintzen. Egia esan, sorpresa ikaragarria izan zen. Oso garrantzitsua da beka publiko bat lortzea, ate asko ireki ditzake etorkizunean eta lan taldeari ere primeran datorkio, beka jaso duenak bere burua finantzatzen baitu, nolabait esateko.

Aintzane Diaz Mazkiaran, biologian ikerlaria. UTZITAKOA

"ZIENTZIA OSO FRUSTRAGARRIA DA; BAINA ATERATZEN DIRENEAN... A ZE MOTIBAZIOA"

"IKERLARIOK EZIN DUGU PREKARIETATE BALDINTZETAN LAN EGIN"

Nola ikusten duzu zure ikerketa tesiaren etorkizuna? Zer ekarriko dio biomedikuntzari zure tesiaren garapenak?

Ez dakit noraino emango nauen nire proiektuak. Egiten ari naizena ikerketa basikoa da: gaixotasuna hobeto ulertzea. Uste dut horretan geratuko dela. Gero ikerketa traslazionala legoke, hau da, tresnak edo farmakoak garatzea pazienteen sintomak hobetu edo tratatzeko. Baina geratzen den horretan ezagutza emango dio alorrari. Gaixotasunen jatorria non dagoen ikerlariok ikertzen dugu; eta gaixotasun bat ez bada ondo ezagutzen ezin da behar bezala tratatu. Guk hori eman diezaiokegu medikuntzari pazienteak gero eta hobeto tratatzeko eta medikuntza pertsonalizatuan sakontzeko; paziente bakoitzak dituen ezaugarrien arabera tratamendu bat edo beste bideratzeko, minbizi mota asko baitaude eta guztiak ez baitira berdinak.

Horretarako zuen ikerketa eta garapena funtsezkoak dira honen aurrerapenean baina... ikerketaren esparrua zaintzen al da?

Pandemiak agerian utzi du ikerkuntza beharrezkoa dela gure gizartean. Espainiar Estatuan zientzian inbertitzen den barne produktu gordinaren ehunekoa %1,5ekoa da gutxi gorabehera. Europako beste herrialde batzuetan, Alemanian, esaterako, %3koa. Hau aldatu beharra dago, ikerlariok ezin baitugu prekarietate baldintzetan lan egin. Ikerkuntza beste osasun arlo bat balitz bezala kontsideratu beharko litzateke, merezi duen finantzazioa emanez. Ikerlariok baliabideak behar ditugu eta ez gaituzte behar bezala zaintzen. Konturatu gara ikerkuntza itxaropena eta etorkizuna dela, eta hori gabe ez garela ezer.

ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Bidezidorra

Amaia izan zen erregistroan jarritako izena; hala ere, lagunek, erdi txantxetan, *Amaia* > izengoitia jarri zioten jolas eta kirol indartsuak gustuko zituelako, futbola eta antzerakoak. Horrela, *Moio* izengoitiaz ezagutzen zuten hurbilekoek eta berak gustuko zuen izen hura. Hamazortzi urte betetzean, bere burua mutil sentitzen zuela-eta aurrerantzean Aimar izanen zela esan zien familiakoei eta hurbileko lagunei. Handik aurrera, bere identitatea zehaztearen premia gero eta handiagoa zen. Txantxazale eta alaia izatetik bere jarrera tristeagoa eta pentsakorragoa bihurtu zen. Bera, mutil sentitzen zen neskaren gorputzean. Gogoetan ari zen gorputz aldaketaren trantsizioa egitea mereziko ote zuen, alegia, hormona tratamenduak eta ebakuntzak egitea sexuaren aldaketa fisikoa burutzeko. Latza! *Moio*k bakarrik bizi zuen prozesua; izan ere, ez zuen erreferentzia askorik, ezta transexualitateaz gehiegi sakondua zuen talde edo kolektiborik ere. Bere gaztetasunean bakarrik, eredu hertsiak eta zurrunak eskaintzen dituen gizarte sistema baten aurrean, familiatik hasita, lagun giroan, jendarteak eskainitako aukera eta baliabideetan, osasungintzan, administrazioaren burokrazia bihotzgabean… horrela, inor errudun jo gabe, berak izan nahi zuen pertsona izateko aurrean zituen traba eta eragozpenak gainditu ezinak zirela sinistuta, senideentzat agur gutuna idatzita, bere burua labarretik bera botatzea erabaki zuen.

GENERO ETA SEXU FOBIAK GAINDITUTA, PERTSONAK IKUSIKO DITUEN GIZARTEA PREMIAZKOA DUGU

Moio. Gordetzea ezinezkoa zen izenburua du Kattalin Miner idazlearen saiakerak eta gertakari hura gogoan iraunaraztea du helburu. Izan ere, Maddalen Lujanbiok, bere bertsokera zirraragarrian, *Moio*ri erreferentzia eginez azaldu zuen bezala, otea bestetik ez zen eremuan *Moio*k bidezidorra ireki zuen ondorengoek egin behar duten bidean argitasun pixka bat izan dezaten. Hain zuzen ere, *Moio*ren heriotzaren inpaktuagatik, jende multzo eta kolektibo askok genitalitate eta generoari buruzko hausnarketa sakonak burutu dituzte eta aurrera pausuak eman dira. Hala ere, bidezidorra bide zabala bihurtzeko lan handia dago egiteko oraindik. Genero eta sexu fobiak gaindituta, pertsonak ikusiko dituen gizartea premiazkoa dugu.

Moio berriki irakurri dudan liburua da; orain, Eguberriak gainean ditugula, Olentzerori euskarazko liburu bat eskatuko diot, besterik ez. Eguberri on!!!

GUTUNAK

"Haurrak ikas zazute euskaraz mintzatzen"...

ERNESTO LEITZA URRESTARAZU

BAKAIKU

Haur eta gazteak zarete euskararen etorkizuna (helduok ez). Euskaraz mintza zaitezten bidali zaituztegu D eredura (gogoz batzuok, badaezpada besteek). Ikastetxean, haur euskaldunak sakabanatuko zaituztete erdaldunen artean, "euskararen erabilera hedatzeko". Porrota. Konturatuko zarete hobe dela euskara ezkutatu, ikaskide erdaltzaleen isekak ekiditeko. Hala, euskara baztertuko duzue, eta ezin ikaskide erdaldunei hizkuntza ikasten lagundu. Askok kolpe latza hartuko duzue euskaraz soilik irakasleak egiten duela ikustean. Lasai, denborak osatzen du dena (orbainak orbain).

Haur euskaldunak sakabanatzea ohitura bihurtu da eta ohiturak sakratuak dira, heldu euskaradun askok ere, beste helduekin erdaraz jardutea bezala. Hori bai, zakurrari / haurrei euskaraz!

Euskarazko ETB-n ez dago zuentzat ezer, baina espainolezkoan bai! Netflixen-eta euskaraz zero, baina erdaraz ziento. Mugikorrean berdin. Euskarazko musika entzuteko **BELEIXE**ra jo beharko, EiTB-n gutxitxo. Kiosko eta liburu denda gehienetan euskarazko komiki / libururik gutxi, erdarazko itsasoan galdurik. Saltoki ia denetan dena erdaraz, euskaldunok bigarren mailako baikara gure etxean.

Zaila dago euskaraz elikatzea, baina heldu askok eta euskalgintzak berak euskaraz egiteko eskatuko dizuegu, eta urtean hiruzpalau ekitaldi handi antolatuko "euskararen alde". Txapa polit askoak dauzkagu euskaraz egitera edo entzutera animatuz. Ez zarete kexatuko gero!!!

Baina euskaraz bizitzea ezinezkoa bada, jardun lasai "aniztasunaren" alde espainolez / frantsesez, Euskal Herrian "aniztasuna" eta "kulturartekotasuna" esaten baitzaio saharartrek, portugaldarrek, txinatarrek edota euskaldunek espainolez hemen eta frantsesez Iparraldean egiteari.

Badira "erradikal" batzuk "aniztasunari" akulturazioa, asimilazioa, edo menpekotasuna esaten diotenak itsusi, baina lasai, gehienok "kulturartezaleak" gara (espainolez)!

Eta erdaraz bada ere, beti egin dezakezue "ongi pilotan eta oneski dantzatzen".

Ignacia Lizarraga, egiaren aldeko borrokalaria

UNAI RAZKIN

Aste honetan hil da Ignacia Lizarraga Aldaburu, 101 urte bete berri zituela. Lau seme-alaben ama, oso gazte zela alargundu zen, familia aurrera ateratzeko ardura bere bizkar gainean hartu behar izan zuelarik. Ignaciaren bizitzak bira tragiko bat hartu zuen 1.984. urteko otsailaren 8an, bere semea zen Angel Gurmindo Lizarraga, *Stein*, GAL erakunde parapolizialak tiroz hil zuenean Hendaian, Bixente Perurenarekin batera.

Stein 1.975eko apirilean atxilotu zuen Espainiako Poliziak, Hilario Urbizu, Karlos Zabala eta Juan Mari Salinas olaztiarrekin eta Roberto Martinez lakuntzarrarekin batera. Bilboko La Salve komisaldegira eraman zituzten galdeketak egitera. Han "lasaiago" torturatzeko aukera zuten, Francok salbuespen egoera ezarria zuelako Bizkaia eta Gipuzkoan. Salbuespen egoera bi hilabetez luzatu zen, emaitza beldurgarriarekin: 8 euskal herritar hilik, Frantziako herritar bat ere hil zen Paben Espainiako Kontsulatuan eginiko protesta ekintza batean, ehunka atxilotu, torturatu... Frankismoaren azken txanpa odoltsua zen, Franco hil baitzen. Denbora gutxi egin zuen *Stein*ek preso, hilabete baten bueltan etxean zen berriz, baina poliziak ez zuen bakean utzi. Frankismoaren torturatik ihes egiten utzi zuen Olazti 1975. urteko amaieran. Zortzi urte geroago itzuli zen zerraldo, Madril eta Parisen agintean zeuden sozialistek, hurrenez hurren, bultzatu eta babestu zuten euskal errefuxiatuen ehizaldian eroria. Otsoportilloko leizean hartu zuen atseden, frankismoaren hasieran afusilatutakoen ondoan.

Ordutik, Estatuek antolaturiko gerra zikinaren atzean estaltzen den egiaren aldeko borrokalari nekagaitza izan da Ignacia. Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiraino eraman zuen Ignaciak guda zikinagatik kaltetutakoen eskubideen aldarrikapena. Bere helburua gauzatua ikusi gabe agur esan digu, *Stein*ek Estatu terrorismoaren biktima gisa aitortu gabe jarraitzen duelako, beste asko eta askok bezala. Baina asko da egiaren bidean aurreratu duguna, munduak GAL zer izan zen badaki, haren buruan egon zen X-a ere ezaguna da. Aitortza ofiziala eta ahal den neurriko erreparazioa lortu arte segituko dugu lanean. Norabide honetan, bada urrats bat 2020an Nafarroako Gobernuak egindako txostenean *Stein*en erailketa jaso izana. Eskerrik asko Ignacia, herria egiteagatik.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

HARA ZER DIEN

Zaintza onak familian

SAKANAKO PREBENTZIO PROGRAMA

Urtea gorabehera askorekin amaitu genuen, eta badirudi COVID-19 pandemia ez dela amaitzen; urtebete daramagu lehenengo, hobera egiten ari garela dirudiela eta erlaxatu egiten gara; ondoren une kritikoagoak izaten ditugu, non larritasunak eta beldurra itzultzen zaizkigun, baita nekea ere. Irteteko eta harremanak izateko gogoa dugu, baina aldi berean, gomendagarria ez dela ikusarazten diguten egoerak agertzen dira... Azken finean, kontrako emozio asko, guraso gisa familian egiten den kudeaketari gehituta, ez dutenak laguntzen.

Prebentzio Programetatik ikusten dugu garrantzitsua dela gure seme-alabekin hezkuntza eta emozio osasuna lantzea, baina orain, bereziki, garrantzitsuagoa dela.

Horrela, Prebentziotik gure aletxoa jarri nahi izan dugu, familiei egutegi bat helaraziz, hamabi ideiekin, hilabete bakoitzeko ideia batekin. Zein garrantzitsua den noizean behin gelditzea, daramagun bizimodu azeleratu honetaz jabetzeko, eta pentsatzea zein garrantzitsua den familia sustatzea eta familia gisa lan egitea. Ideia hauek ez dira berriak, baina ez dago soberan noizean behin irakurtzea eta kontzientzia hartzea. Lan emozionala egitea zein garrantzitsua den, eta bide batez, gure seme-alabak identifikatzea. Guzti hau gure seme-alaben etorkizunean inbertsioa egitea da, gure familia baita.

Egutegian ideia hauek agertzen dira:

1. Dauzkagun seme-alabak onar ditzagun, ez eduki nahiko genituzkeenak.
2. Gure seme-alabek eta imitatzen dituzten ereduak begiratzen duten ispilua gara.
3. Esperimentatzea funtsezkoa da ikasteko, eta euren autonomia sustatuko dugu.
4. Pertsonak bakarrak gara, konparazioek ez dute hazten laguntzen.
5. Zailtasunei erreparatu beharrean, aukerak sustatu.
6. Gure seme-alabei denbora eskaini eta haien arazoak edo kezkak entzun.
7. Gure seme-alabei maite ditugula esatea.
8. Mugak beharrezkoak dira gure seme-alaben hezkuntzan. Egin ditzagun maitasunetik.
9. Umoreak gure seme-alabekiko hezkuntza lana erraztuko digu.
10. Errespetua da gure seme-alabei irakatsi diezaiekegun balio garrantzitsuenetako bat.
11. Sentimenduen erabilera gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da.
12. Gure seme-alabek egiten dutenaz interesatzeak garrantzitsuak sentiarazten ditu.

Aipatu egutegia abendua eta urtarrila bitartean iritsiko da Lehen Hezkuntzako seme-alabak dituzten familien etxeetara.

Erabilgarria izatea espero dugu, eta urteko hilabete bakoitzean aipatu ideiaz hausnartzea eta gozatzea.

Bidea konpondu eta hezurtegia egin da

Erdontzako dermioko bidea konpondu da esne bilketako kamioia errazago pasa dadin

LIZARRAGABENGOA

Hildakoak lurperatu egiten dituzte Lizarragabengoan. Baina dagokien aldia pasa ondoren lurpetik atera behar dira gorpuak. Halako kasuetan ateratzen diren hezurdurak gordetzeko Lizarragabengoako Kontzejuak hezurtoki bat egin du kanpo santuan. Lan horietara kontzejuak 1.500 euro bideratu ditu.

Bestetik, Erdontzako dermioko bidea konpondu dute. 240 bat metroko luzeran porlana zabaldu dute. Horrela, han dagoen behitegira egunero esne bila etortzen den kamioiaren joan etorriak erraztu dira. Lanak 2020an egitekoak ziren, baina pandemiagatik enpresa hartzaileak epea luzatzea eskatu zuen, aurten egiteko. Baina enpresak arazoak izan eta lanari uko egin zion. Beraz, deialdian bigarren gelditu zen enpresak egin ditu lanak. Haiengatik 38.628,29 euro (BEZa kanpo) jaso ditu. 25.150,12 euroko dirulaguntza izan da. Lan hori Etxarri Aranazko Udalak pagatu du, Lizarragabengoako kontzejuarekin duen hitzarmenaren barruan. Azkenik, kontzejuaren bulegoa itxi nahi da, elkartetik banatzeko. Lanak aurreikusi dira. Horretarako 3.218,6 euro gordeta daude.

Hasi dira araztegia eraikitzeko lanak egiten

Urte erdi iraunen dute eta 400.000 euroko aurrekontua dute. Egungo elementu batzuk mantendu eginen dira

DORRAO

Azaroko azken asteaz geroztik ari dira Construcciones Valeriano Santesteban S.L. enpresako langileak Dorraon lanean. Elizalde dermioan, herritik 190 metrora, ur beltzen araztegia egiteko lanak hasi dituzte. Lur mugimenduak eta materialak eramatea dira aurreneko egitekoak. Gaur egun ur beltzak jasotzen dituen Imhoff tankearen ondoan ari dira. Gauzak ongi lanak maiatzean despedituko dira. Bitartean Dorraora joaten direnak tentuz ibili beharko dute, lanetako kamioiak elizatik behera Lezizako zubira ateratzen baitira.

Makinak Dorraon lanean.

Nilsa enpresa publikoa Dorraoren berezitasunetara egokituko den araztegia diseinatu du. Izan ere, 114 dorrobarrez aparte artisau gaztandegia dago herrian. Etxeko urak ez diren beste osagai espezifiko batzuk daudenez, zaharkituta dago gaur egungo hobi septikoa. Hura bigarren mailako dekantagailu bihurtuko da. Araztegia iragazki biologikoetan oinarrituko da. Uraren tratamenduaren ibilbidea bi hezeguneetan despedituko da.

Etxebizitza premiaz

Etxebizitzaren beharrari, eskaintzari eta eskaerari buruzko azterlan bat egiten ari da Olatzagutiko Udala. Nafarroako Gobernuaren 20.000 euroko dirulaguntza jaso du udalak. Aztiker Soziologia Ikergunea kontratatu du ikerlana egiteko. Hango langileak ari dira olaztiarrei etxebizitza premien inguruan galdetzen.

ARTXIBOA

Urak arrasto ederra utzi du

Mendietako elurraren urtzeak eta euriteek uholdeak eragin zituzten ostiralean. Ura makina bat etxe eta enpresatan sartu zen. Garbitzen lana izan zen. Horretarako auzolanak izan ziren ere. Urak lehendik kaltetuta zeuden lau zubi okerrago utzi ditu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Arakil ubeldea osteguneko dagoeneko ibarreko hainbat puntutan aterata zegoen, esaterako: Etxarrenen, Hiriberri Arakil eta Ihabar artean edota Ziordian. Ubeldeak ostiralean gainezka egin eta lurrez betetako urek soro, larre, baratzeak, errepideak, industrialdeak eta herriak ur marroiz estali zituen. Ostiralekoa aspaldiko uholde handiena izan zen eta ezohiko irudia utzi zigun. Herri guztietan ubelde eta erreka kontra zeuden baratze eta soroak urpean gelditu ziren. Larre eta soro itxiturak lurrera bota edo makurrarazi zituen uraren indarrak, eta hark eramaten zituen orbel, enbor eta gainontzeko zikinkeriak. Larreak ongi eutsi diote, baina ereindako soro batzuetan uholdeak lurra hazi eta guzti eraman du. Uholdeengatik Nafarroak Estatuari natura hondamendi eremu izendatzeko eskatu dio, eta Ministro Kontseiluak hala eginen du gaur. Gutxienez Nafarroako 74 herritan izan dira kalteak. Horien artean daude momentuz, esaterako, Arruazu eta Ziordia.

Aizkorben Plazaolako bide berdea izan da euriteengatik kaltetua. Aldapa beherako zatietan kaskailuzko bidean ur erretena sortu eta bidea pitzatu da. Plazaola turismo partzuergoa da bide berdearen ardura duena eta ibilbide guztian sortutako kalteak zein diren aztertzen ari da.

Errotzen Arakil ibaia joan den osteguneko 23:00ak aldera atera zen. Uholdeak maila gorena ostiraleko 04:00ak aldera hartu zuen eta ibaiak emari handiari ostiraleko 23:00etaraino eutsi zion. Ondorioz, NA-7010 errepidea itxita egon zen eta Erroztarrek egun bat eman zuten isolatuta. Larunbateko 10:00ak aldera zabaldu zen errepidea. Kalteei dagokienez, ubeldearen kontra dagoen beheko auzoetako etxeetan sartu zen ura. Eraikinen beheko solairuan zeuden etxe tresna elektrikoek kalte handiak izan zituzten. Uraren indarrak, bestalde, errepidearen kontra dagoen baratze bateko harresia bota zuen, 10-12 metroko luzera zuen harresia. Arakildarrek estimu handia dioten Oskiako ermitan ere sartu zen ura, metro pasa-edo. Erroztarrek gogoan zuten 1993ko uholdea, "hau baino txikiagoa izan zena". 1953ko uholdeak Urritzolarako zubia aurretik eraman zuen. Oraingoan eutsi egin dio.

Arakil ibaiak zubia estali zuen Errotzen. UTZITAKOA

Urritzolan bat egiten dute Arakil eta Larraun ubeldeek. Bata eta bestea pasatzeko zubi bana daude. Eta Iradiko bidean barna Izurdiagara joateko aukera dago. Arakil gaineko zubia 2019an konpondu zuen Urritzolako Kontzejuak. Baina herri txikia izanik ez du nahikoa dirurik Larraun gaineko zubia konpontzeko, eta lehendik gaizki bazegoen, azken uholdeak okerrago utzi du. Urritzolarrek gogoan dutenez, aspaldi Madrildik Izurdiagara kanpamenduetara etortzen ziren umeek hautsi zituzten zubiak, petrileko harriak ibaira botatzen baitzituzten. Petrila lehendik baxua bazen, orain urak zatiak eraman ditu, kasik arkuari eraginez. Zubiaren ertzetan ere kalteak daude. Lehen ere zulo handia egin zen eta uholdeei aurre egiteko dirulaguntza batekin konpondu zuen kontzejuak. Orain ikusi behar zer nolako laguntza jaso dezaketen Urritzolan.

Izurdiagako San Joan auzoa Arakil ibaitik gertu dago. Han bizi diren izurdiagarrek gertutik bizi zuten ubeldeak gainezka egitea. Etxe bakar batean sartu zen ura, baina ez asko. Uholdeak aurrekoak baino korronte handiagoa zuela nabarmendu digute. Uraren indarrak soro eta baratzetako hesiak bota eta dermioko bideetako kaskailua eraman zuen. Esaterako, Urritzolako bidea, Larraun ibaitik zenbat eta gertuago gero eta okerrago dago, adarrez beteta, kaskailurik gabe, oinez ibiltzeko juxtuan. Izurdiagako futbol zelaia kaskailuz beteta agertu zen, hango hesiak botata eta aparkalekuan zuloak. Arakil ubeldeak gainezka egin eta NA-7010 errepidea urpean gelditu zenez, Foruzaingoak errepidea San Joan auzoaren irteeran moztu zuen.

Etxeberrik Larraun ubeldearen ertzean Arrantzaleen Ibilbidea du. Larraun ibaiak askotan uzten duen tokia da, eta kontzejuan ez dute harekin kezka handirik. Baina uraren maila jaistean zein egoeratan gelditu den ikustera joanen dira. Etxeberriko Kontzejuaren kezka nagusia orain Bi Ahizpen dagoen oinezkoendako zubia da. Izan ere, Larraun ubeldea gainetik pasa da, korronte indartsuarekin. Urak oinarria asko jo du eta haren benetako egoera zein den jakin nahi dute. Horretarako teknikariren baten beharra beharko dute.

Hiriberri Arakilen urtero behin edo bitan izaten dira uhol-

Arruazun herri guztia hartu zuen urak. UTZITAKOA

Etxarri Aranatzen Arakil ibaiak gainezka egin zuen. UTZITAKOA

deak eta, horregatik, "ohituta" daude ura ibilgutik kanpo ikusten. Oraingoan ura gehiago atera da eta ibaitik gertuen dagoen etxe ondoraino iritsi zen uholdea. Baina ez du kalterik sortu, eta herria uneoro komunikatuta egon zen. Dermioko soro guztiak urpean gelditu ziren, 300 metroko zabalera baino gehiago hartu zuen uholdeak Hiriberri Arakil parean. Uholdeak zubia estali zuen. Lehendik zubiak begietako arkuen goiko partean harriak falta zituen eta konponketa premia zuen. Ur emaria jaisteko zain daude kontzejuan, uholdeak zein arrasto utzi dituen jakiteko.

Ihabarren parean uholdeak kilometro bateko zabalera hartu zuen. Uraren indarrak ibai bazterreko txipu pila bota ditu eta soroetatik lurra eraman. Zubian eta hesien kontra egur pilak agertu dira. Dermioko bide batzuk ere nahiko hondatuta gelditu dira.

Uharte Arakilen uholdeak dauden bakoitzean Irañetarako errepidea itxi beharra dago, eta abenduren 5ean dagoeneko itxi behar izan zuten. Hainbat uholderen ondoren Uharte Arakilgo Udalak Itzoako bidea porlanez egiteko laguntza jaso zuen. Baita ibaira jaisten den aldapa porlaneztatzeko ere. Batak eta besteak ongi eutsi diote uholdeari. Hala ere, uraren indarrak haien ondoan lurra jaso du, eta merenderoko paperontziak eta zenbait hesi errotik atera ditu. Goiko basoan hainbat bide izorratu ditu urak, erabiltezin utziz. Herri inguruan ere halakoak egin ditu.

Juanardantzetxikiko zubiak Uharte Arakil eta Arruazu lotzen ditu. Garai bateko errepidea izandakoan dago zubia, gaur egun dermioko bidea dena. Uholdeak errepaso handia eman dio zubi horri, mugitu egin du eta zulo handia egin. Bi udalak haren egoerarekin kezkatuta zeuden aurretik, eta uholdeak kezka areagotu besterik ez du egin. Uharte Arakilgo eta Arruazuko udalek Nafarroako Gobernuari makina bat aldiz eskatu diote zubia konpontzeko. Foru administraziotik erantzun dute Arruazuko zeharbidea konpondu ondoren zeharbidea eta dermioko bidea udalaren esku izatera pasa zirela, zubia barne. Baina zubia Uharte Arakilgo dermioan dago. Arruazuarrek argi dute zubia Nafarroako Gobernuaren jabetza dela. Gaztigatu dutenez, zubia pasabidea izateaz aparte Movistarrek handik hainbat hodi pasatzen ditu, eta Sakananet-en zuntz optikoko linea ere handik pasatzea aurreikusten da.

Arruazuko autobia azpiko sarrera-irteera joan den ostegun arratsaldean itxi zuten urez beteta zegoelako. Autobia egin zuenean Nafarroako Gobernua jakitun zen uholde arriskua zegoela eta, horregatik, pasabide horretan ura ateratzeko punpa bat jarri zuten. Baina ur emari handia dagoenean punpak ezin du denarekin eta pasa itxi egiten da.

Ostiral goizean dagoeneko ur emari handia zegoen Arruazun. 08:00etan ikasleek ez zuten ikastetxeetara joateko autobusik hartu. 08:30 aldera uraren mailak gorakada handi bat izan zuen. Normalean Arruazun uholdeak ibai aldetik sortzen dira. Ur maila pixkanaka igotzen da Arnazbidetik herrirantz. Jose Maria Satrustegi kalea eta eliza ingurua hartzen ditu. Batzuetan plazaraino iristen da ura. Lurpetik ere ura filtratu izan da etxeetan halakoetan. Hamar urtean behin uholde txiki bat izaten dute Arruazun. 2003koa izan zen azken uholde handia.

Baina ostiralean ohiko uholdeaz aparte beste ur korronte bat izan zuten arbazuarrek. Izan ere, ura autobia gainditu eta ibaia Arruazu mendebaldetik ekialdera zeharkatzen hasi zen Kale Txiki, Kaleaundi eta Bidezar kaleetan barna. Urak korrontea zuen eta, horregatik, maila jaitsi zenean ez zuen lohirik utzi.

Hori bai, urak herria hartu eta etxetara sartu zen. Arbazuarrek haietatik ura ateratzen nahikoa lan izan zuten. Gainera, langintza horretan ez zuten batere lagundu orotariko ibilgailuetan joan ziren kuxkuxeroek. Autoak pasatzean olatuak sortzen zituzten eta urez hustutako etxeetan berriro ura sartzen zuen. Bakarren bat hirutan pasa zen. Auto handi horiek baliatu behar izan zituzten arbazuarrek herrira sartzeko, haienak ondoko herrietan utzita. Bestetik, suhiltzaileek bikote bat eta bere semea eliza ondoko etxe batetik atera zituzten, urak maila handiena zuen tokitik. Ostatuan etxe tresna elektrikoak hondatu ziren. Langileek arbazuarren laguntzaz ostatua garbitu zuten eta igande-rako zabalik zegoen. Bestetik, etxeetan altzariak eta gailu elektrikoak ahalik eta altuera handienean jarri zituzten. Urarekin busti eta ondoren ez puzteko, zurezko ateak kendu zituzten hainbat etxetan. Horrek bustitzeaz libratu zituen. Larunbatean haietako asko kalean zeuden, haizatu eta zuten hezetasuna kentzeko.

UHOLDEARENGATIK ERROTZ EGUN BAT ISOLATUTA EGON ZEN ETA ARRUAZU ETA ZIORDIA GUTXIAGO

Uholdeak, atzera ere, autobia azpiko sarrera-irteeraren jabetzaren eztabaida jarri du mahai gainean. Nafarroako Gobernuak Arruazuko Udalaren esku utzi nahi du. Hau da, pasabidearen mantenua eta etengabe funtzionatzen duen ur punparen argindarra eta mantentzea ordaintzea. Baina arbazuarrek diote foru administrazioa izan zela autobia egin duena eta, beraz, hari dagokiola ardura. Astearte arratsaldean sarbidea itxita zegoen, baina errepide mantentzeaz arduratzen diren bi langile hura

garbitzen ari ziren. Ura beharrean lohia besterik ez zegoen.

Arruazu parean errepide sarea kaltetuta gelditu zen ostiralean. Uholdeengatik Sakanako Autobian (A-10) noranzko bakoitzean errail bana besterik ez zuten zabalik utzi. Foruzainak bertan izan ziren egoera baretu bitartean. Bestetik, bigarren mailako errepidea, NA-2410, urpean gelditu zen, erabil ezina. Uraren indarrak eta hark eramaten zuenak autobiaren itxiturako hesia bota zuen Arruazu parean.

Lakuntzan Arakil ubeldea ondoko enpresetan sartu zen, Barga eta Egainen. Horretaz aparte, mintegi bat ere urpean gelditu zen. Bestetik, Arruazun zein panorama zegoen ikusita, Lakuntzako Udaletik Arruazura laguntzera joan ziren. Kamioian tresneria kargatu eta garbiketa lanetan aritu ziren ostiralean.

Lizarragabengoan ubeldea ostegun gauean hasi zen ateratzen eta herriraino sartu zen. Ura etxe bateko bajeran besterik ez zen sartu. Lizarragabengoan normalean ubeldea ez da hainbeste ateratzen, aspaldi ez zutela halakorik ikusi. Herria eta Arbizu lotzen dituen errepidea urpean gelditu zen eta hala egon zen ostiral guztian. Etxarri Aranaztik barna egin zituzten joan etorriak lizarrengotarrek. Askotan ixten da errepide hori eta beste bidea hartu behar izaten dute. Ur azpian gelditu zen Berroeta aldeko bidearekin dute kezka Lizarragabengoako Kontzejuan.

Etxarri Aranatzen ubeldea ibaiaren inguruan nabaritu zuten gehien. Angorta kaleetako etxeetan osteguneko 22:30ean nabaritu zuten ur maila igotzen hasi zela eta uholdea zetorrela. Horregatik, oiloak eta bestelako tresnak babesean jarri zituzten. Ostiraleko 06:00etarako ur maila gorenera iritsi zen. 1996ko uholdea "izugarria" izan zela adierazi du auzokide batek. Harekin alderatuta, ostiraleko ibaiko uraren gainezkatze maila 30 cm igo zen.

Ura etxean ez sartzeko atea egurrez tapiatu zuenik izan zen. Izan ere, estreinakoz uholdea Angorta kalearen eskuin aldeko etxeen pareraino iritsi zen. Auzokideen iritziz, zerrategia zenean egindako 80 cm-ko altuerako paretak ura haiengana bideratzen du eta, ondorioz, 60 cm-ko maila hartu zien urak. Eraikin horren parean dagoen etxea inguratzen kanal batzuk daude eta ura egoki bideratu zuten. Kanpozelai kalean dagoen etxeak soro guztietatik heldu den uraz aparte, aipatu paretaren kontra talka egin ondoren, bueltan joaten zitzaien ur korrontea ere jaso zuen. Uraren maila 13:30eraino egon zen gorenean eta ordutik aurrera beherantz egin zuen. Ostiraleko 19:00etarako autoz herrira joateko moduan zegoen.

Trenbidearen bestaldean, Basopokale kaleko postontzien eta edukiontzien ondoan, errekak gainezka egin zuen. Antza, kainu zuloak zikinak zeudelako izan zen uholdea. 20 cm-ko altuera hartu zuen urak han. Barrurago, basoan eroritako euria jasotzen duten ezpondak gainezka egin zuten eta zerrategian eta hango etxean dezente sartu zen. Bestetik, errota berria, gutxigatik, baina uretik libratu zen.

Bakaikun, autobiatik iparraldera hamaika etxe daude, Barrenkale kalean. Haietan kaltetuena errota izan zen. Etxejabeek aurreikusi zuten uholdea izanen zela eta, horregatik, altzariak gora igo zituzten. Etxekoak senideen etxeetara joan ziren ostegunean 20:00etan eta larunbat eguerdira arte ezin izan ziren bueltatu. Eta han opatutakoa ezin sinestekoa zen: ura metro eta erdi igo zen. Ondorioz, altzari guztiak kaltetu ziren. Eraikinari eta altzariei hezetasuna kentzeko hondatutako berogailua konpondu eta martxan jarri zuten. Barrenkaleko beste etxe bateko sotoan sartu zen ura. Uholde arriskuaren jakitun, berriak diren kaleko eraikinak kota altuagoan jaso zituzten, eta haietan bajeretan sartzeko zorian egon zen, baina ez zen urik sartu. Baina etxe horiek beraiek ura geldiarazten dute eta bien artetik pasatzean korronte handia sortu zen. Trenbideaz bestaldean dauden hiru etxeetatik bitan ura filtratu eta barrura sartu zen.

URAK UTZITAKO LOHIA ETA ZABORRA GARBITZEKO AUZOLANEAN ARITU ZIREN

OLATZAGUTIAN LARRATXOTA ERREKA IZAN ZEN GAINEZKA EGIN ETA UHOLDEA ERAGIN ZUENA

Urdiainen basorako bidea moztu zuen ibaiak eta Errota eta ondoko etxea izan ziren urez inguratuta gelditu zirenak.

Altsasun Isasia industrialdearen mendebaldea izan da kaltetuena. Biak Bat elkartea, Pablo Jimenez iturgina, Del Reyno kontserbak, Izarte lorezaintza eta zurgintza eta motor zaletasuna duten bi altsasuarren pabiloiak urpean gelditu ziren. Haietako batek azaldu duenez, haien paretik pasatzen den Arakil ibaiaren ur maila igo eta industrialdearen altueraren pare hartzen duenean estoldetatik ura ateratzen hasten da. Gainera, mendebaldean ibaiaren paralelo doan dermioko bide bat dago Gasteiz-Altsasu trenbideko zubiaren ondoan. Ubeldeak gainezka egitean ura bidetik industrialdeko A kalera joaten da eta enpresa bateko paretan jo ondoren kalean behera egiten du aipatutako pabilioiak kaltetuz. Gainera, Olatzagutia-Iruñea trenbidearekin topo egitean ekialderantz zabaltzen da ura, industrialdearen zati gehiagotara zabalduz. Ostiralean, Iparraldeko Autobiara (A-1) iritsi zen eta arazoak sortu zituen trenbideko zubi parean.

Bertan enpresak dituztenek azaldu dutenez, aurretik izan dituzte uholdeak, "baina 30-40 cm hartzen zuen urak. Ostiralean metro eta erdira iritsi zen". Uholdea zetorrela jakinik, ostegunean gauzak altueran jarri zituzten. Ostegun gauean hasi zen uraren maila igotzen eta larunbat goizera arte ezin izan zuten lantokietan sartu. Ezusteko ur mailak pabiloietan zegoen guztia hondatu zien: ordenagailuak, dokumentazioa, ibilgailuak, lanerako tresnak…. Horretaz aparte kalte espezifikoak izan ziren pabiloi bakoitzean. Esaterako, Del Reyno kontserba etxekoek urak ikututako elikagai kontserba pote guztiak birziklatze enpresa bati eman beharko dizkio, beira, metalak eta organikoa bereizteko. Gainera, eguberrietako zareak egiteko erositako urdaiazpikoak eta bestelako produktuak bota behar izan ditu. Batzuen eta besteen artean hondakinez hainbat edukiontzi bete zituzten. Eta jabeen baimenarekin haietatik txatarrerako piezak hartu zuenik ere egon zen. Bestalde, udaleko langileak kalean gelditutako lohia

Juanardantzetxikiko zubia, Lizarragabengoa, Altsasu eta Olatzagutia. UTZITAKOA

Ziordian uholdeek kalte ugari eragin zituzten. Mirari ermitan ere ura sartu zen. UTZITAKOA

garbitzen egon ziren astelehenean eta asteartean.

Bestetik, Biak Bat elkarteak animaliek lagundutako terapiak egiten ditu. Pabilioia horretarako egokituta zuten, baina guztiz hondatu zaie. Eta, horrekin batera, Oreo katua eta txori batzuk hil zaizkie. Hibernazioan dagoen dortokak eutsi egin dio. Elkarteko Josune Azpiroz Imazek azaldu duenez, "pabiloia utzi eginen dugu eta Gazte Txokora eraman dugu erabili zitekeen gutxia eta gure konpromisoak beteko ditugu". Baina, gaineratu duenez, "zirt edo zart egiteko garaia iritsi zaigu. Hemen probisional geunden. Eta gure hasierako apustua egitea baloratu beharko dugu: Sakanan okupazio zentro bat egitea zen. Horretarako, administrazioaren laguntza beharko dugu". Gizarte Eskubideen Departamentuarekin, Carmen Maeztu Villafranca kontseilariarekin eta Ines Frances Roman 2019an bildu ziren. Pandemiak guztia gelditu zuen. Asteartean Altsasun izan zen Maeztu eta elkarteko kideekin hitz egitekoa zela jakinarazi zuen.

Igandean aseguruen partzuergokoak pasa ziren eta perituen bisita astean zehar izan dute. Isasiako kaltetuak udalarekin bilduko dira ostiralean zer egin aztertzeko. Bestetik, urak gainezka egitean Beheko Bentako zubitik ezin pasa eta urak herrirantz egin zuen. Alberto San Romanen etxean urak 1,72ko altuera hartu zuen, 1953ko uholde handian baino 25 bat cm gehiago. Urpean gelditu zitzaien tresneria (motozerrak, sasiak garbitzeko makina...) eta galdara. Horregatik, berogailu eta ur berorik gabe gelditu ziren etxean. San Roman kexu zen haienetik ez zelako inor pasa zer moduz zeuden galdetzeko. Altzaniaren ondoan zeuden etxe batzuetan ere urarekin sustoa izan zuten.

Olatzagutiara Urbasatik jaisten den erreketako bat da Larratxota. Inguraketa kalera iristean lurpean sartzen da eta hala zeharkatzen du herria. Aurreko asteetako euriteen eta mendian zegoen elurra urtzearen ondorioz, errekaren emaria asko handitu zen. Eta aldapan behera berarekin orbela, adarrak eta beste eraman zituen. Inguraketa kalean lurpera sartzeko pareta bat dago, enborrak lurpera ez sartzeko. Ostiral goizaldean han urak eramandako gauza asko pilatu ziren eta urak bere bidea ezin zuenez segitu, errekaren ibilgutik atera zen. 06:00ak edo 06:15 aldera urak Inguraketa kalea gainditu eta Larratxota kalean barna 150 bat metro behera egin zuen, Kale Nagusiraino. Handik urak frontoirantz egin zuen, ondoren elizarantz jo eta ubeldean bukatzeko. Olatzagutiko Udalak txatartegia duen herritar batengana jo zuen. Hark kamioiko garabiko pintzarekin uholdea eragiten zuen zaborra kendu zuen eta 08:00etarako ura bere bidean zegoen. Ondoren gelditutako lohia garbitzeko txanda iritsi zitzaien kaltetutako olaztiarrei.

Larratxota erreka gainezka egitean makina bat etxe eta bajeratan sartu zen ura. Esaterako, Emilio Bujanda Ondarrak kudeatzen duen okindegiko biltegian, lantegia, komunak eta taberna urez bete ziren. Eguneko ogi ekoizpena galdu zuen.

AUTOBIA AZPIKO BI PASABIDEAK, ARRUAZU ETA ZIORDIAKOA, URPEAN GELDITU ZIREN

Ziordian badakite zerbait uholdeez. Arakil ubeldearen kontra dagoen Egutera kalean eta haren ondoan, ibaiaz beste aldean dagoen txipudian ateratzen da ura normalean. Horregatik, aspalditik, hareazko zakuak dituzte Eguterako etxeetan, uholde arriskua dagoenean atean jartzeko. Ostegunean hala egin zuten. Udalak, gainera, bi hesi jaso zituen, metalezko bat eta egurrezko bat. Ziordiarren ustea da haiek atzeratu zutela uholdea, bestela ura lehenago sartuko zela Egutera kalean.

Eta hesiak ostegunean 20:00ak aldera gainditu zituen urak. Herrian nahasmendu handiena 22:00etaraino izan zuten. Izan ere, Egutera kalea, Txipudia parkea eta Gaztelu ingurua urpean gelditzeaz aparte, azken horren iparraldean dagoen Mirari auzoa ere estali zuen urak. Lau etxetan eta hainbat bajeratan sartu zen ura auzoan, eta etxe tresna elektrikoak kaltetu zituzten. Auzoan dagoen Mirari ermitara ere ura sartu zen.

Ziordiarrek batean eta bestean ura ateratzen lagundu zuten. Eta horretan ari zirela, beste fronte bat ireki zitzaien: Altzania aldetik jaisten den erreka batek gainezka egin zuen herri sarreran, igerileku parean. Suhiltzaileen laguntza izan zuten 23:30etik 02:00etaraino. Okerren ikusi zituzten hiru etxeetan punpa bana utzi zuten, eta haien bila ostiral arratsaldean joan ziren. Familia bat etxetik ateratzen ere lagundu zuten suhiltzaileek, eta haiek 02:00etan esan zutenean ezer gehiago egiterik ez zegoela ziordiarrak etxera joan ziren. Nahiz eta boluntario gutxi batzuk gau osoa zaintzan pasa zuten, tartean DYAko kide Juanjo Calvo. Bitartean, gauez, Altsasuko Lastadi enpresaren biltegitik harea eramaten egon ziren batzuk. Harea zakuak Egutera kalearen eta Mirari auzoaren ondoan daude badaezpada.

Ostiral goizean Ziordia inkomunikatuta zegoen. Alde batetik, uholdeak dauden bakoitzean autobia azpiko pasa beti urpean gelditzen da. Arruazun ez bezala, han Nafarroako Gobernuak ez zuen ura ateratzeko punparik jarri eta, horregatik, euriteak daudenean ziordiarrak sarrera-irteera horretaz ahaztu egiten dira. Bestetik, mendebaldeko sarrera ere urpean zegoen errekak gainezka egitean. Baso lanetan aritzen diren Perez anaiek garabiaren laguntzaz errekaren ibilgua itxi zuten enbor eta adarrak kendu zituzten. Urak bere bidea hartu zuen eta uholdea txikitzen joan zen. Ostiraleko 09:00etarako ziordiarrek herriko sarrera nagusia zabalik zuten.

Kalteei dagokienez, herritik gaztelura joateko egurrezko zubia aurretik eraman zuen urak. Txipudian bankuak eta harlauzak mugitu ditu. Hango jolas parkeko txirrista gaztelu ondoan agertu zen. Urak hartutako kaleak guztiz lokaztuta gelditu ziren eta haiek garbitu behar izan ziren. Dermioko bideetan ere kalteak eragin ditu urak. Bestalde, Dona Maria eta Mirari auzoetan zorua eta sareak berritzeko lanak egiten ari dira. Haiek urpean gelditu ziren. Baina nahikoa aurreratuak zeuden eta ez zuen aparteko kalterik eragin. Galtzada harriak jartzeko zeuden eta asteartean zabaldu zuten asfaltoa. Azken asteetako euriteengatik ez balitz lanak lehenago despedituta leudeke.

KOLABORAZIOA

Arakil-Burunda, errota eremu

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Ukaezina da eiherak (*ihara*, *ihera*), hau da, errotak, gizatalde edo herri neolitiko eta brontze arokoen ekonomian izan zuen garrantzia, eta, seguru asko, ez zen beste modu batean izan gizatalde euskaldunen kasuan ere. Ekonomiak, geografiak eta inguruak orokorrean garrantzia izan behar zuen ezinbestean herrien baitan eta, hala izanik, hizkuntzan ere arrastoa utzi behar, erromatarrak Euskal Herrira iritsi baino lehen. Hala dio Michelenak (1989) ere: *"Nuestra relación con el mundo comenzó bastante antes de los comienzos de la influencia romana y es natural pensar que esta relación tuvo su reflejo lingüístico"*.

Azken mendeotan, *errota* (< rotam), izan dugu erabat zabaldurik hegoaldean (*bolu* ere bai Bizkaia aldean), baina toponimia zaharrean erabat hedaturik dago bestea, *eihera* (*ihara*, *igara*, *yara*). Horrela uste dut nik eta horrela lortzen dut Sakanan eta inguruan diren hedadura handiko zenbait toponimo ulertzea.

Bestalde, eiherak edo errotak etengabe azaltzen dira Europako gainerako herrialdeetako toponimia nagusian: 'mill' ingelesekoan (Millford, Mill Valley, Fort Mill), 'molino' gaztelaniakoan (Molinaseca, La Molina), 'moulin' frantsesekoan eta Belgikakoan (Petit Moulin, Bretignolles-le-Moulin, Moulin du Puy, Croupet du Moulin), 'mulino' italieran (Mulino del Piano), 'mühle' alemanarenean (Neue Mühle, Layen Mühle, Glabecker Mühle)… Eta horrela izanik inguruko hizkuntzetan, zer dela eta ez da 'errota' ageri osagai moduan Euskal Herriko toponimo nagusietan? *Ara-* osagaia, aldiz, barra-barra ageri zaigu Euskal Herriko toponimian eta bilakabidea ez litzateke azaltzen batere zaila: *eihera*, *eihara*, *ihara* ageri da jasorik Orotariko Hiztegian eta Mitxelenak (1989) ere hala jaso zuen: "…: top. *Erret Ihera Guiuelea* (Nav. 1150), <el costado del molino del rey>".

Eta hemendik abiaturik, /h/ kontsonantearen testigantza gorde duten aldagaiak ditugu (*igara/igera*); hasierako bokal itxiaren kontsonantizazioa erakusten dutenak (*yara/yera*); eta, azkenik, (hidronimo, mendi …) konposizioan aferesia jasan dutenak ere bai (*ara-*):

• *ihara* > *(i)gara/(i)gera* (/h/ren testigantza, asimilazioa): Urdiaingo 1627ko dokumentu batean, ondasunen zerrenda batean *Igaraguibel* toponimoa dakar, eta *Ieraguibela* eta *Iaraguibela*, aldiz, 1683ko herri bereko beste batean. *Igaratza* Aralarren.

• *ihara* > *iara* > *iera* (asimilazioa) > yera (bokal itxiaren kontsonantizazioa). Carasatorrek (1993) ondorengoak jaso zituen: *Yerabidea* Irurtzunen (1595, 1611), *Martin de Yerabidea* "vecino del lugar de Arriba" (1595), *Yeraondoa* (Iturmendi, 1620), *Yeraburua* (Errotz, 1571), *Yeramendiguibela* (Bakaiku, 1619), *Yyaraga* (Ihabar, 1699), *Yarabide* (Altsasu, 1623) eta *Yerabul* (< yera + buru, Etxarren, 1750, *"...pegante a cequia molinar"*).

• *ihara* > *iara* > *ara-* (aferesia konposizioan): *Arazuri, Arakil(e), Aralar(re), Aragun(e)*.

Arakil (< **yaragil* < **iaragil(e)* < *ihara* + *-gile*)

Ibai ertzean hainbeste errota (*eihera* Iparraldean, *ihara* Luzaiden) izanik, ibai errotagilea litzateke gurea. Carasatorrek bere blogean, 1427an Burundan, Etxarri Aranatzen, Ergoienan eta Uharte Arakilen errota ugariren berri ematen du eta hauez gain, Lakuntzan, Irañetan, Irurtzunen, Hiriberrin, Ihabarren eta Etxarrenen bana. Errota pila, beraz, Arakil ibaiaren urak, besteak beste, profitatuz.

Proposatzen dudan bilakabidea aztertuz, XIII. mendeko *Yenego* > Eneko pertsona-izenak izan duena (hasierako kontsonante igurzkaria galdu eta azken silabako kontsonante herskari ahostuna ahoskabe bihurtu) jarraitu baino ez da behar gure hidronimoarekin: **yaragil(e)* > *arakil*.

Azken osagaia (*-gile* > *-gil*), Sakana erdialdean, apokopaturik maiz ikusten da: *kisusgil/kisuskil* (gisugile, igeltsero), *langil* (langile), *zirringil* (*zirringila* Uharte Arakilen). Eta hidronimo honen kasuan bezalaxe, beste zenbait toponimoren eta hidronimo baten kasuan ere, amaierako bokalaren galera suertatzen da: *Aralar, Fandoilar* (Ziordia) eta *Aragun* (ara + -gune). Ultzaman ere Arkil (< arakil, sinkopa medio?) erreka dago.

Zenbaitek *Arakil*, erromatarren *Araceli*-tik eratortzen du, haien garaitik ageri delako dokumentaturik horrela, baina metatesia medio, jatorrizkoa izan daitekeen **(i) aragile*-tik (> **arakile* >) **arakeli*-ra erabat ulergarria da bilakabidea. Erromatarrek, haien grafiara moldatuko zuten (**arakeli* > *araceli* -baina *aracaeli*, *aracoeli-*), geroago beste hainbat toponimorekin gaztelaniak egin duen moduan: *Aitzita* (Dos Hermanas, Irurtzunen), *Larraina* (La Reina, Iruñean), *Ariztibarren* (Truistibarte, Aezkoako Hiriberrin), *Arrubi* (La Rubia, zenbait herritan)… Bestalde, normala da *Aracaeli* lehenago dokumentaturik agertzea *Arakil* edo 'Araquile' baino, orain arte behintzat ez baitago euskaldunek erromatarrak etorri baino lehen idazten zuteneko lekukorik. Eta, honekin batera, gauza ziurtako ere eman dezakegu arakildarrek izena jarrita izanen ziotela haien ibai nagusiari: *(I) arakil(e)* eta erromatarrek Araceli (*Aracaeli* < **arakeli* < *Arakil(e)*) transkribatu (caesar > kaiser / cesar, bezala).

Burunda (< *Borunda* < **Borunta* < **Boruneta* < *Bolun* + *-eta*)

Harana eta ibaia. Ibaiak harranari izena emanik, jatorria aldameneko Araban du, Araian.

Dokumentu gehienetan, Burunda, ageri da, baina beste batzuetan *Borunda* ere bai, lehen silaban erdiko bokala daramala.

Julio Altadillen *Geografía Histórica de Navarra* liburuan bi aldiz gutxienez: "*por la carretera á la Borunda*" eta "l*os valles de la Borunda, Araquil y Larraun*". Pascual Madoz-en *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar* behin baino gehiagotan. Gauza bera *Panorama español. Crónica contemporánea* 1845eko liburuan: *Borunda* (bi aldiz 26. orrialdean). 1819ko Nafarroako Erresumako *Cuaderno de las leyes y agravios liburuan* (73. orrialdean) ere bai.

Etxarriko udal-artxiboko 1533-1537 urteko arteko auzian ere behin baino gehiagotan ageri da *Borunda* idatzirik. Dokumentu berean 1533ko Etxarriko batzarrean parte hartu zutenen artean *Pedro Borunda* eta 1537ko batzarrekoan, aldiz, aurrekoa eta *Joan de Borunda* ere bai.

Michelenak (1989) honela jaso zuen gure koronimoaren lehen osagaia izan daitekeena: "*Bolua, bolu <molino> (…) en composición bolin-, borin-, borun-: Bolueta, Bolumburu; Bolibar (Bolivar), Bolinaga, Borinaga; …).*"

Eta autore berak, aurreraxeago (78. or.), *-da* atzizkia du hizpide: "*Alguna vez he pensado si Legarda no será simplemente Legarreta*". Ildo beretik joaz, Legarda Legarretatik eratorria bada, zergatik ez genuke pentsatu behar Borunda Boruneta-tik etorri dela?

Bolun- + *-eta* ► *Borun* (l/r txandaketa, *bolin-/borin-* bezala) + -eta ► **Boruneta*.

**Boruneta* ► *Borunta* (sinkopa).

**Borunta* ► *Borunda* (kontsonante herskari hortzetakoaren ozentzea).

Hortik egungo Burundara ez litzateke batere harrigarria izanen bilakabidea. Errota eremua adieraziko luke, orduan, toponimoak.

Eta Burundako toponimia arakatuz, behin baino ez bada ere, Iturmendin agertzen da hasierako osagaia duen toponimoa, *Bolinsoro* (NTM X, 62) 1893 eta 1990 urteetan dokumentatua: "*Bolin 'molino' es término que debió ser corriente en lengua vasca, a juzgar por su presencia en toponimia (cf. en Vizcaya Bolibar, documentado Molinibar, Bolinaga). Hoy en día ha desaparecido de la lengua viva sustituído por el también latinismo errota. En Navarra no conocemos otra aparición del término que ésta*".

Ugari da, bestela ere, mendebaldean baliatzen den lexikoa Burunda haranean eta ezaguna dugu, era berean, Burundako hizkeraren eta Mendebaldekoaren arteko hizkuntza ezaugarri kidetasuna. Toponimo hau eta *Burunda* bera ere, orduan, horietako beste bi izanen genituzke.

DUELA 25 URTE...

1996ko kirolari onenak

Sei sari eta hiru aipamen berezi banatu zituzten. 18 urtez gorakoen artean Aritz Artieda eta Jeronimo Mendoza mendizaleak eta Sara Larrañaga trontzalaria. 18 urtez beherakoen artean Pablo Urtasun txirrindularia eta Patricia Lopez de Zubiria trontzalaria. Talde onenaren saria Burunda txirrindulari taldearendako izan zen eta euskara gehien bultzatu zuen taldearen saria Olatzagutiko Sutegi pilota eskolarendako izan zen. Azkenik, aipamen bereziak Pedro Quintana Bengoetxea borrokalaria, Lagun Artea futbol taldea eta Jesus Mari Andueza pilotari ohiarendako izan ziren.

Chaimae Daoudendako Nafarroa Koloreetan 2021 Saria

Aurten gehien nabarmendu den migratzailearen Nafarroako Gobernuaren saria jaso du

IRURTZUN

Migrazio Politiken eta Justiziaren Zuzendaritza Nagusiak sortutako Nafarroa Koloreetan Sariak estreinakoz banatu ziren asteazkenean. Haren bidez kulturen arteko bizikidetzaren alde hainbat pertsonek eta erakundek egindako lana aitortu nahi du foru administrazioak. Saritutakoen artean Chaimae Daoud abokatu eta gizarteratze teknikaria dago. Tetuanen jaioa Chaimae, 37 urte ditu. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba ditu. Familia berriz Nafarroan elkartu zenetik bizi da hemen. Irurtzunen lau urtez bizi izan zen. Hasieratik, inguruko gizarte mailetan sartu zen eta Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kultura aniztasunaren zerbitzuan lan egin zuen. Ondoren, Anafen eta Gurutze Gorrian aritu zen kulturarteko bitartekari. Gaur egun Iruñerrian bizi da eta CEARen gizarteratzeko teknikari da. Daoudek esker oneko hitzak izan zituen senideendako, lagunendako eta "hemen dauden eta gizartean integratzeko prozesuan lagundu didaten pertsona batzuendako".

Chaimae Daoud saria jaso zuenean.

Osasun sistema publikoaren defentsan

Osasun etxeen parean atzo egindako bilkuretan oinarrizko osasun arreta "interes politikoengatik hiltzen" uztearen kontra egin, eta osasun sistemaren "gabeziak eta mugak" konpontzeko gobernuaren aurrekontuetan estrategia aldaketa exijitu dute

SAKANA

Nafarroako osasun plataformak deituta herrialdeko osasun etxeen parean kontzentrazioak egin ziren atzo. Irurtzunen hamabost bat pertsona elkartu ziren, Etxarri Aranatzen hogei bat eta Altsasun ehun. Bilkura horien bidez plataformak Nafarroako Gobernuari "osasun sistema publikoa salbatzeko borondate politikoa" eskatu zion. Azaldu zutenez, "aurrekontuen aurreproiektuan oinarrizko arreta aurrekontu osoaren %15 da, eta hazkunderik gabe mantentzen da". Gaineratu zutenez, "aurrekontu horiek onartzeak, osasun sistema publikoa gehiago hondatzea eta desegitea etorriko du, eta horrek aseguru pribatuen onura handiagoa ekarriko du, dagoeneko eskuak igurzten ari baitira, kaosaren zain". Plataformako kideen iritziz "egungo gobernuan ez dagoela egiazko aldaketarako borondaterik".

Atzo, besteak beste, salatu zituzten: medikuen mugikortasuna, haiek pazienteak ezagutzeko aukera ez izatea, kontsultetarako denbora gutxi izatea eta espezialistengana bideratzen da jendea askotan, egiazko beharrik gabe edota pazienteei jarraipena egin ezin izana.

Pandemiarekin osasun etxeen egoerak okerrera egin duela nabarmendu dute: "medikuntzako, erizaintzako eta harrerako profesionalen errefortzu eta ordezkapen faltaren ondorioz, maiz beharrezko ezagutzarik gabe aritzen direnak, gainera". Horrekin batera, "COVID-19ari lotuta ez dauden patologien eskaria handitzen ari da egunero, patologia horiek bigarren mailan daude, eta itxarote zerrendak areagotzen ari dira. Horrek erantzukizun handia dakar, COVID-19ak lan karga handia eragiten duelako". Eta plataformakoek osasun arloko langileek "beren lana ongi egin ezin dutelako sentitzen duten frustrazioa" mahai gainean jarri dute.

Zure pisu hutsa
gure etxea izan daiteke
Zure etxebizitza hutsa NASUVINSAri
errentan emaiozu:
• Kezkarik gabe: hilero kobratzen da, seguru.
• Arriskurik gabe: etxebizitza egoera onean itzuliko zaie.
• Eta orain abantaila fiskalekin: lortutako etekinen %40ko murriztapena PFEZean.
INFORMA ZAITEZ ETA EMAN BIZITZA ZURE ETXEBIZITZA HUTSARI!
ESKATU HITZORDUA: 848 420 600
bolsaalquiler@nasuvinsa.es
www.vivienda.navarra.es
Nasuvinsa
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

Javier Ollo Martinez eta Jokin Zelaia Oiarbidek gobernukideei aterpea erakutsi zieten.

Etxegabeen aterpeak badu finantzazioa

Altsasuko Udalak eta Gizarte Eskubideen Departamentuak hitzarmena sinatu zuten. 2020an 167 pertsona desberdin hartu zituen Altsasuko aterpeak, %96,6 gizonezkoak eta emakumeak, berriz, %3,4

ALTSASU

Marino Ayerra etxegabeen aterpearen aurtengo finantzaketa lotuta dago. Horretarako lankidetza hitzarmena sinatu zuten Javier Ollo Martinez alkateak eta Carmen Maeztu Villafranca gizarte eskubideetako kontseilariak asteartean. Haren bidez Altsasuko Udalak 8.967 euro jasoko ditu. Bide batez, Maeztuk eta Gizarte Babeseko eta Garapenerako Lankidetzako zuzendari nagusi Andres Carbonero Martinezek aterpea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.

Dagoeneko aurten 133 pertsona pasa dira aterpetik. Kopuru hori pandemiaren aurrekoa baino nabarmen txikiagoa da. 2020ko udaberri hasieran hainbat astez itxita egon zen. Ondoren hara joaten ziren edo edukiera osoa zuten beste aterpetxe batzuetatik edo babes zibiletik edo polizia kidegoetatik eramandako pertsonak, ezarritako konfinamendua han pasa zezaten.

"Erantzun globalagoa lantzen ari gara"

CARMEN MAEZTU VILLAFRANCA GIZARTE ESKUBIDEETAKO KONTSEILARIA

Nafarroan hiru aterpetxe daude: Tuteran, Iruñean eta Altsasun. Baliabide horiei zein garrantzia ematen diezue?

Etxerik ez duten pertsonenak artatzeko beharrezkoak dira. Pertsona horiei arreta eskaintzeko plan on bat izatea Nafarroako Gobernuaren kezka da. Altsasuko aterpea mantentzea oso garrantzitsua da, eta garrantzitsua da halako baliabideak herrialdean barna banatuak egotea. Gainera, etxerik gabe bizitzea praktikatzen duten pertsona askorendako oso ezaguna den puntua da. Inklusio planaren barruan etxerik gabe bizitzen diren pertsonei erantzun globalago bat ematea lantzen ari gara. Horrela erantzuna eman nahi diegu, ez aldi batez horrela bizi direnei, baizik eta horrela etengabe bizi direnei. Toki batetik bestera doan pasadizoko jendea dago, baina etengabe etxerik gabe bizi diren pertsonak ere badaude.

Zer egin asmo duzue?

Donostiako Eguia Careaga fundazioak ikerketa eta proposamena egin digu. Azken hori, etxerik gabe bizi diren pertsonei eman beharreko erantzuna zein izan beharko lukeen dio. Egia da hiriguneetan gehiago dagoen fenomeno bat dela. Nafarroan 200-300 bat pertsona dira. Baina horri ere erantzun berritzaileagoak eman beharra zaizkio. Zeren askotan erakundeek eman duten erantzuna izan da egoitzetako egonaldiei mugak jartzea, eta horrek jendea aterpe batetik bestera joatea eragin du. Hori ere aldatzen ari da. Hirietan kokatutako pertsonak ere badaude.

Aldaketarik izan da?

Bai. Orain arazo handiena oso baldintza onetan ez dauden etxebizitzak dira. Hau da, jende pila bizi diren etxeak, inork sekula zaharberritu ez dituzten etxebizitzetan bizi direnak… Eta horrekin arazo gehiago izaten ari da. Halako etxebizitzek jendea finkatzen dute. Pandemiarekin batetik bestera ibiltzearena saihestu egin da.

Bestalde, adinekoak etxean ahalik eta gehien egoteko plangintza, zertan da?

Alde batetik, dekretua aldatu eta onartu dugu. Hark lan egiten dugun esparru guztietako gizarte zerbitzuen egoitza zerbitzuen, eguneko arreta eta anbulatorio arreta funtzionamendua arautzen du. Adinekoen, mendekotasuna eta desgaitasuna dutenen kasuan eredu txikien alde egin dugu, elkarbizitza unitateak. Egoitza berriak eraikitzerakoan mugak jarri ditugu, plaza kopuru jakin bat gainditu ez dezaten. Gainera, elkarbizitza unitate modura eraiki ditzatela. Europako funtsekin dauden egoitzak zaharberrituko ditugu, eredu horretara bihurtzeko; ahal diren neurriak elkarbizitza unitate, bakarkako gela gehiago egon daitezen, espazio txikiagoak. Pertsonan, haren zainketan zentratuta egon daitezela. Pertsonek etxea uzten duten haustura ez dadila sortu. Egoitza ereduak etxearen antza gehiago izan dezala, inguru lagunkoiagoak eta txikiagoak sortuz, zeinetan langile errotazioa txikiagoa izanen den. Zeren egoitzak egon behar dute, jende batzuk ezin baitute beraien etxean segi. Gainera, pandemiak agerian utzi du espazio handiko erakundeen eredua ez dela egokia. Aldaketa horretarako diruaren zati bat langileen prestakuntzarako izanen da. Lan egiteko ditugun moduak aldatu beharra dago, bakoitzari behar duena ematen saiatzeko. Eraldaketa prozesu hori luzea da.

Beraz, Altsasuko Aita Barandiaran egoitzan lanak eginen dira.

Inbertsioetarako deialdia eginen dugu, prestatzen ari gara. Lanak egoitzak esandako eredu horretara aldatzeko egin beharko dira. Kontua ez da izanen hau edo hura konpontzea. Lan horien zati bat gobernuak eginen ditu bere egoitzetan. 2024rako egin beharko dira.

Eta etxeko arretaren inguruan, zer?

Pertsonak etxean ahalik eta gehien gelditzen lagunduko duten baliabide guztiak indartzen saiatuko gara. Etxean bertako teleasistentzia eraldatzeko proiektu garrantzitsua eginen dugu: teleasistentzia modernoagoa bihurtu, zerbitzu gehiago eskaini, arretarako beste metodologia batekin… Horrekin batera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen etxeko arreta ere moldatu nahi dugu. Baita zaintzaile profesionalen kontrataziorako laguntza sustatu ere. Eta eguneko arretako zerbitzuko plaza kopurua handituko dugu. Hobetzeko tarte handia dugu.

Hamazortzi proposamen artean aukeratzera

Botoa emateko 'www.olazti.eus', 012 doako telefonoa eta, asteburuan, kultur etxean

OLATZAGUTIA

Udalaren parte hartze aurrekontuen hirugarren edizioan olaztiarrek 45 proposamen aurkeztu dituzte. Haiek aztertu eta ezarritako irizpideak kontuan hartuta, hamazortzi proposamenek aurrera egin zuten. Herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorakoek haietako baten alde botoa emateko aukera izanen du, beti ere, Nortasun Agiria edo ordezko bat beharko da botoa emateko. Horretarako, *www.olazti.eus* web gunean sartu, 012 doako telefonora hots egin edo asteburuan kultur etxean jarriko den hautestontzian botoa eman dezake: gaur 19:00etatik 20:30era egonen da, larunbatean 11:30etik 13:30era eta 19:00etatik 20:30era eta domekan, azkenik, 11:30etik 13:30era.

Honako hamazortzi aukeretako baten alde egin dezakete olaztiarrek domekara bitartean: igerilekuetako aldagelak berritu eta askaldegiak jarri kiroldegi ondoan autokarabanendako gunea jarri, Sutegi gimnasioa eta aldagelak konpondu, padel pista estaltzea, argiteria publikoan LED argiak jartzeko bigarren fasea egin, energia eraginkortasuna hobetzeko eraikin publikoetan eguzki plakak jartzea, Batueko iturri inguruan askaldegiak jartzea, frontoian atea aldatu sarbide digitala jartzeko, kiroldegiko gimnasiorako materiala erostea, eskolan estalopea egitea, Arkinorruti industrialdean argiteria hobetzea, kamioien aparkalekuko sarbideak zaintzeko kamerak jartzea, kultur etxeko ur zikinen azpiegitura hobetzea, eguberrietako argiak berritzea, bi desfibriladore erostea, jolas parkeen zorua berritu eta estalpeak jartzea, memoriaren parkean barbakoak jartzea eta Nagusia eta Xabierko Frantzisko kaleak egokitzea irisgarriagoak egiteko.

Altsasun jarritako edukiontzietako bat. HONDAKIN ZERBITZUA

Arropa edukiontziak ibarrera bueltan etorri dira

Emausko Trapuketariek ibarrean 29 jarriko dituzte. Dagoeneko aurreneko lauak Altsasun erabilgarri daude

SAKANA

Bi urte gabe egon ondoren, arropa biltzeko edukiontziak bueltan dira Sakanan. Lehendabiziko lauak Altsasun jarri ditu Emausko Trapuketariak (guztira hamar izanen dira). Lehenago arropa edukiontziak zeuden tokietan jarriko dira berriak. Horretarako, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuarekin hitzarmena sinatu du. Geroz, trapuketariak arduratuko dira edukiontzietan jasotako arropa, poltsa, gerriko, oinetakoak eta beste jasotzeaz. Langintza hori ez zaie arrotza trapuketariei, etxez etxeko bilketa egiten baitute Sakanan (948 464 867 telefonora hots egin), eta garbi gune finkoetan jasotako arropa (astegunetan 09:00-14:30era) ere eramaten duelako.

Emausko Trapuketariek jasotako arropa guztia Berriozarren duten berrerabilpen eta birziklapen plantara eramaten dute. Han arropak sailkatu eta higienizatu egiten dituzte. Egoera onean dagoen arropa berrerabiltzeko haien denden bidez salgai jartzen dute. Egoera txarrean dagoen arropa birziklatu egiten da garbiketarako trapuak sortuz.

Datuak eta hausnarketa

Amaia Okariz Ormaetxea zerbitzuko hezitzaileak azaldu duenez, "moda azkarrako kateetan saltzen den arroparen %50 urtea bete aurretik hondakin bihurtzen da. Orain dela 15 urte baino %60 arropa gehiago erosten dugu eta denbora erdia erabiltzen dugu". Horren ondorioz ehunak hondakin bilakatu dira, "eta sortutako kantitateak gorakada izugarria izan du. Gaur egun sortzen ditugun hondakinen %4-5 inguru textilak dira".

Horregatik, Mank-etik barreko hausnarketarako deia: "pentsatu duzu inoiz benetan hainbeste arropa behar ote duzun? Izan ere, 7.500 litro ur behar dira praka pare bat ekoizteko, gutxi gorabehera pertsona batek zazpi urtean edaten duen ur kantitate bera". Okarizek gaineratu duenez, "ehungintzak produktu kimiko toxikoak erabiltzen ditu, ur eta argindar kontsumo altua du eta hondakin toxiko asko isurtzen ditu".

Arropa erostean "kritikoago jokatzeko" deia egin dute zerbitzutik, eta"arropa eskuratzeko bide jasangarriagoak erabiltzea" gomendatu dute: bigarren eskuko arropa, ehun naturalekin edota material birziklatuekin egindako arropak, arroparen bizia luzatu hura konponduz eta arropa zaharrekin arropa berriak sortuz edo erabiltzen ez dugun arropa oparituz.

Okarizek jakinarazi duenez, "gaur egun sortzen denaren %15-20 inguru bakarrik lortzen da sailkatua biltzea. Europako Legediaren arabera, 2020. urterako gutxienez %50ak, berrerabilpen eta birziklapenaren bidea hartu beharko zukeen". Ehunak hondakin ez bihurtzeko arroparen edukiontzi horietara botatzea gomendatu du.

Mank-en aurrekontua %13,3 handitu da

5,4 milioi euroko aurrekontua onartu du, joan den uretan baino 620.000 euro gehiago. Ibarreko bizikleta ibilbidearen proiektua eginen da eta Hondakin eta Ur zerbitzuak indartuko dira. Aipatu bi zerbitzu horietako tasak ez dira igoko

SAKANA

Egin behar diren inbertsioen arabera gora eta behera egiten du diru kopuruak urte batetik bestera Sakanako Mankomunitatearen aurrekontuak. Aurrekontu igoeraren erdia (330.000 euro) udalek Mank-i egindako ekarpena handituz lortu da. David Oroz Alonso Mank-eko lehendakariak esan duenez, "mankomunitatea indartuta, Sakana osoa da indartzen duguna". Orozek udalen inplikazioa biziki eskertu du.

Bizikleta bidea

Sakanako bizikleta ibilbidea eraikitzeko proiektura 50.000 euro bideratu ditu Mank-ek. Txostena udaberri aurretik esku artean nahi lukete ibarreko erakundeko ordezkariek, Nafarroako Gobernuak halako proiektuetarako dirulaguntza deialdia egitekoa baita. Gainera, estatuko aurrekontuetan miloi bat euroko partida dago, EH Bilduren emendakin bat onartua izan ondoren. Proiektua gauzatzeko lanak heldu den urtean bertan egitea aurreikusten du Mank-ek

Ibilbide horrek "Sakanaren balioa aitortzeko balioko du", azaldu du Orozek. Beste egiteko bat ere aurreikusi dio proiektuari: "heldu diren urtetan Sakana egituratuko duen ardatza izanen da bizikleta ibilbide. Gainera, Arabako Lautadarekin eta Plazaolako bide berdearekin lotuko gaitu".

Zerbitzuetako inbertsioak

Hondakin Zerbitzuan bederatzi inbertsio egin ditu Mank-ek. Horiek Nafarroako Hondakinen Funtsaren bidez finantzatu dira. Haien artean dago hondakin bilketa zerbitzuan erabiltzeko bigarren eskuko kamioi baten erosketa. Aste honetan bertan hasi da lanean ibilgailu berria. Aurreko bi urtetan beste bi kamioi erosi zituen, eta ibarreko erakundeak kamioi flota berritzen segituko du. Izan ere, 2022ko aurrekontuetan bi kamioi erosteko 190.000 euro aurreikusi dira, bata berria izanen da eta bestea bigarren eskukoa. Erosketa horietarako ere funtsaren laguntza izanen du Mank-ek.

Elektrizitatea sortzeko turbina jarriko da Urdalurko ur tratatamendu plantan. ARTXIBOA

"SAKANA ESKUALDEA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTZEKO APUSTU GARBIA EGIN DUGU"

Bestalde, Irurtzunen garbigune bat eginen da, Bi Ahizpe kaleko 15-A zenbakiaren parean egonen da, Akaborro industrialdeko berdegunean. Hasiera batean Ziordikoaren moduko zerbait egitea aurreikusi bazen ere, Ziordia eta Altsasuko garbiguneen arteko zerbait eginen du Mank-ek. Horretara, 137.000 euro bideratuko ditu.

Ur Zerbitzuari dagokionez, aurten Urdalurko ur sarea Satrustegi eta Etxarren artean luzatu du. Eta dagoeneko erabilgarri dago. Eta heldu den urtean bi proiektu sustatuko ditu. Batetik, ura ozonoarekin tratatzeko proiektua. Gaur egun erabiltzen diren aditiboak neurri handi batean ordezkatu nahi dira, uraren kalitatea hobetzeko. Inbertsioa 74.000 eurokoa da eta aditiboetan aurrezten denarekin, inbertsioari buelta berehala emanen dio Mank-ek. Bestetik, Urdalurko uraren tratamendu plantan argindarra sortzeko turbina bat jarriko da. Zehazki, ura plantara sartzen den hodian jarriko dute. Hala, han bertan elektrizitatea sortu eta tratamendu plantaren autokontsumorako izanen da. Energia berdea sortzeaz aparte, argindarrean aurreztuko du ibarreko erakundeak 80.000 euroko inbertsioa eginda.

Azkenik, Mank-en egoitza berritzeko proiektuaren erredakzioa urte bukaerarako izan nahi lukete Mank-eko arduradunek. Besteak beste, uralitazko teilatua kentzea eta eraikinaren isolamendu termikoa egitea aurreikusita zegoen. Proiektua idatzi ondoren, hura nola egin aztertuko dute. Bestalde, eraikinaren jabe diren udalekin hizketan ari dira, balizko lagatzea edo zesioa aztertzeko.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ALTSASU Gazte agenda: *La Casa de Papel* escape room-a.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunea.

ZIORDIA Ipuin kontalaria: *Hankaz Gora!* Berditasun istorioak Deibiz Amezturekin.
18:30ean, liburutegian.

OLAZTI Annekdotas eta Mozolu DJ.
23:30etik aurrera, Clinker jatetxean.

LARUNBATA 18

IRURTZUN Euskal Ekitaldiak: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Kuikui* ikuskizuna. Sarrerak agortuta.
17:00etan, kiroldegian.

ALTSASU Haize Berriak bandaren eta Belén Otxotorena aktorearen *Katius, la niña del arroyo* familiarteko ikuskizuna.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda: *Agur 2021!* Dj-a eta afaria.
20:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***Eiffel* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Ostirala 17: 19:00
Igandea 19: 19:30

***La familia Adams 2* familiarteko familiaren emanaldia**
Igandea 19: 17:00

***Filmoteka Nafarroan: Zumiriki* film dokumentalaren emanaldia Oskar Alegria zuzendariarekin**
Astelehena 20: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

***Un espíritu burlón* zineforum filmaren emanaldia**
Igandea 19: 19:30

OLAZTI Txen Dj-aren *Balck and white* techno saioa.
23:00etan, Barandi tabernan.

IGANDEA 19

ALTSASU Castillo Suarezen *Elurra elurraren gainean* liburuaren aurkezpena.
17:00etan, Haritza tabernan.

IRURTZUN Olentzeroren postontzira kalejira.
17:30ean, plazatik.

OLAZTI Laminatutur. Ekarri zure gutuna Olentzerorentzako.
18:00etan, Vicente Argomaniz plazan.

ALTSASU *Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira* elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 20

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

IRURTZUN Musika eskolako lehenengo mailako ikasleen kontzertua.
17:30ean, kultur etxean.

ASTEARTEA 21

ETXARRI ARANATZ Udal musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua.
Kultur etxean.

IRURTZUN Musika eskolako bigarren eta hirugarren mailako ikasleen kontzertua.
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Musika eskolako hirugarren zikloko ikasleen eta ikasle helduen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

ASTEAZKENA 22

IRURTZUN Musika eskolako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleen kontzertua.
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Euskal Ekitaldiak: *Janisjoplin* eleberriari buruzko solasaldia Uxue Alberdi idazlearekin.
19:00etan, Pikuxar elkartean.



ALTSASU *Here comes the sun. Beriain: mendi baten erretratua* Chema Gutiérrez Landaburu eta Jose Antonio Azpilicueta Albizu margolarien lanen erakusketa.
Abenduaren 24ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan zuzenekoa baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.

OLAZTI Jaiotzen erakusketa.
Urtarrilaren 9ra arte. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igandetan 13:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era. Belenzaleen elkartean.

ZORION AGURRAK

Maren Azpiroz Andueza
9 urte!! Zorionak ta ongi pasa maitte familia guztian partes! Muxu

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajerarekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuek deitu 669 156 117 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Josefina Arregi Klinikan administrazio buru lanpostua betetzeko: Enpresen administrazioan lizenziatura eta hiru urteko esperientzia eskatzen dute. Informazio gehiago *www.josefinaarregui.com* webgunean.

OHARRAK

Lakuntzako Gaztetxokoan izena emateko epea zabalik: Abendutik maiatzera larunbata eta igandetan, 17:00etatik 20:30era egonen da zabalik 11-14 urte bitarteko gazteentzat (2007tik 2010era bitartean jaiotakoak). Tasa 40 euro izango dira (5 euro/ hilabeteko).Tasa ordaintzeko sabuespenak egonen dira diruz urri dabiltzala frogatzen dutenentzat, Udalari eskaria eginez aldez aurretik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emandako txostena baliatuta. Seme-alabak Gaztetxokoan inskribatzen dituzten familiek, izena emateko orria betetzeaz gain, udalak helaraziko dien dokumentua sinatu beharko dute parte hartzeko baldintzak onartzen dituztela ziurtatzeko.

Harrera 2019 2020 urteetan jaiotako Altsasuko haurrei: 2022ko urtarrilaren 6an goizeko 11:00etan, 2019an jaiotako kintari eta 12:00etan 2020an jaiotako kintari harrera egingo zaie udaletxe aurrean. Zure seme-alaba altsasuarra bada baina erroldaturik ez badago, abenduaren 20ra arte bere izena eman dezakezu zapia eta kintaren lehen argazkia egiteko ekitaldian parte hartzeko. Izena emateko Iortia Kultur gunean izena eman edo *www.iortiakultura.com* web orrian inprimakia bete.

Odol-emateak Olaztin: Abenduaren 21ean, 17:00etatik 20:30ra. Informazio gehiago *www.adona.es/eus.*

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Amaiur Garmendia Urkia,** urriaren 9an Etxarri Aranatzen
- **Kidane Larrayoz Urteaga,** azaroaren 23an Altsasun
- **Fatou Mbaye Lo,** azaroaren 26an Olaztin

EZKONTZAK

- **Amaia Lizarraga Unanua eta Gorka Imaz Berastegi,** abenduaren 11n Lizarragan

HERIOTZAK

- **Maria del Carmen Villaverde Cascajar,** abenduaren 1ean Altsasun
- **Maria Pilar Astiz Ezkurdia,** abenduaren 2an Uharte Arakilen
- **Eleuterio Otxagabia Bakaikoa,** abenduaren 5ean Etxarri Aranatzen
- **Aurora Goikoetxea Agirre,** abenduaren 7an Urdiainen
- **Bernardo Mendinueta Mendinueta,** abenduaren 9an Arbizun
- **Miguel Angel Senar Goldarazena,** abenduaren 12an Lizarragan
- **Ignacio San Roman San Miguel,** abenduaren 7an Olaztin
- **Jose Manuel Armendariz Insausti,** abenduaren 7an Olaztin
- **Ignacia Lizarraga Aldaburu,** abenduaren 13an Olaztin

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.
• Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
• Balkoien eta terrazen itxitura
• Kolore guztietako mallorkinak
• Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA

Bernardo Mendinueta Mendinueta

Zuk akusitako xendetati barna ibillen ga
egunioko argiya billen

Itxekuek

ESKELA

Bernardo Mendinueta Mendinueta

Zodien tokiyen zodiela amiñakin bat en ta
segi gozatzen guk zubekin en dun bezela

Obats, Berat, Elorri, Malen, Sukari eta Xuban

ESKELA

Bernardo Mendinueta Mendinueta

(Gure lankide Jaioneren aita)

Dastatu eguzkiaren argia zauden lekutik

aek

Sakanako AEK

ESKELA

Jose Manuel Armendariz Insausti

—Goian bego—

Agur aita

Tere eta Gabriel, Josema eta Agedi

Bidaia on, aitona

Gurutze, Oier eta Leire, Ekaine eta Hector, Iakoitz, Haizea eta Albert eta Iker

Bihotz bihotzez, aiton

Naroa, Oroitz eta Amaiur

Olazti

ESKELA



Ignacia Lizarraga Aldaburu

Seme bat kendu zizutenean, Euskal Herriko neska eta mutil guztiak hartu zenituen seme-alabatzat. Egiaren aldeko borrokalari nekagaitza. Eskerrik asko herria egiteagatik.

SAKANAKO sortu

ESKELA

Miguel Angel Senar Goldaracena

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Haren aldeko meza igandean egingo da,
abenduak 19, 13:15ean Lizarragako elizan.

Etxekuek

Lizarraga - Ergoiena

ESKERTZA

Eleuterio Otxagabia Bakaikoa

(Etxarri Aranatzen hil zen, 2021eko abenduaren 5ean)

Familiakoek jasotako dolumin eta
maitasun keinu guztiak
eskertu nahi dizkizuegu

Etxekoak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

Puntuak animoa eman die. EITB

Laso-Imazen kontrako lehia gakoa dela dio Ezkurdiak

PILOTA Sakandarrek Binakako bosgarren jardunaldiko puntuak lortu nahi dituzte

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Asteburuan Binakako Txapelketako bosgarren jardunaldia dago jokoan. Bi puntu dituzten Altunak eta Martijak Urrutikoetxea eta Aranguren izango dituzte aurkari ostiralean Urdulizen. Altunarendako partida garrantzitsua da ostiralekoa, eta bikoak dena eman nahi du.

Ezkurdiak eta Tolosak Lasoren eta Imazen kontra jokatuko dute igandean Astelenan, eta arbizuarrarendako ere partida gakoa da asteburukoa. Astelehenean lortu zuten euren lehen garaipena. "Puntu hori beharrezkoa genuen, txapelketa beste animo batekin jarraitzeko. Etzi irabaziz gero, Laso eta Imaz berdinduko genituzke. Binakakoa oso paretsu dago" azaldu du Ezkurdiak.

Binakakorako hautagaitza sendoa aurkeztu dutenak egungo txapeldun Elezkano eta Zabaleta dira. Lasoren eta Imazen kontra ikusgarri aritu ziren (22 eta 11 irabazi zieten), eta hiru punturekin, lider dira. Larunbatean bere onenean ez dauden Peña II.a eta Albisu izango dituzte arerio, Labriten.

Bukatzeko, Promozio mailan ikusgarri ari dira Bakaikoa eta Elizegi, jokatutako lau partidak irabazita. Larunbatean, Zabala eta Etxebarria dituzte aurkari.

Palako finalistak jakiteko garaia

PALA Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoko finalerdiak jokatuko dira asteburuan Etxarri Aranatzen. Larunbatean lehen mailako eta eliteen mailako finalerdiak jokatuko dira, eta igande goizean gaztetxoen mailako finalerdiak

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Etxarri Aranazko Gure Pilota Klubak hainbat entitateren laguntzarekin antolatutako Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoa azken txanpara heldu da. Asteburuan torneoko finalerdiak jokatuko dira Etxarri Aranazko Euskalerriari pilotalekuan.

Gure Pilotako buru Miguel Angel Aristorenak adierazi bezala, "maila izugarria" du torneoak. Palista onenak lehiatzen ari dira, eta goi mailako partida estuez gozatzeko aukera izan da orain arte. Sakanako torneoan klub ezberdinetako palistak nahastu eta bikote parekatuak osatzen saiatzen dira. "Horregatik palistak oso gustura etortzen dira gure txapelketara, bikote orekatuak egiten saiatzen garelako. Normalean partidak oso estuak izaten dira, tanto diferentzia gutxikoak, oso lehiatuak" azaldu du Aristorenak. Eta kasu askotan horrela izan da.

Azken bi jardunaldietako partidak Altsasuko Burunda frontoian jokatu dira. PILOTAJAUKU

Gaztetxoak, igandean

Torneoko lehen jardunaldia Etxarri Aranatzen jokatu zen azaroko azken asteburuan, eta torneoko hurrengo bi jardunaldiak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu ziren. Asteburu honetako finalerdiak, aldiz, Etxarri Aranatzen jokatuko dira. Larunbat goizean lehen mailako finalerdiak erabakiko dira, larunbat arratsaldean elite mailakoak, eta igande goizean gaztetxoen mailakoak, 11:00etatik aurrera.

Finalerdi estuak aurreikusten dira, hautagaiak oso onak baitira. Tartean palista sakandarrak daude –Naroa Otxoa, Olaia Eizagirre, Maider Huizi, Irati Igoa…– eta ea abenduaren azken asteburuan jokatuko den final handietan nor ikusten dugun.

Finalerdiak

Abenduak 18, larunbata

- **Lehen Maila, 11:00etan:**
  - Olatz Zulaika-Naroa Otxoa / Miren Errea-Maitane Villanueva eta Nahia Eizmendi-Andrea Lusarreta arteko irabazlea
  - Uxue Agirresarobe-Olaia Eizagirre / Saioa Berakoetxea-Paula Gorostiaga
- **Eliteak, 17:00etan:**
  - Uxue Murillo- Itsaso Erasun / Leire Galdos-Maider Huizi
  - Irati Sarageta-Ariane Arrieta / Amaia Irazustabarrena-Irati Igoa

GIMNASIA ERRITMIKOA

Eguberritako erakustaldirik gabe

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeko Eguberritako erakustaldia abenduaren 18an litzateke, Olaztin, baina taldeak ekitaldia atzeratzea erabaki du. "Erabakia hartzea izugarri kostatu zaigu, baina uste dugu ez dela momentua" azaldu du Olaia Agirre monitoreak. Egoera hobetzen denean erakustaldia egitea da klubaren asmoa.

KIROLDEGIA

Hiru sakandarrek jaso dute Indurain beka

Indurain Fundazioak 160 beka banatu zizkien asteartean, Nafarroa Arenan, beste horrenbeste kirolari nafarri. Guztira 307.800 euro eman ditu Indurain Fundazioak, aurreko urtean baino %14 gehiago, ondoko programetan: Kirol Olinpiarrak, Kirol Paralinpiarrak, Kirol Egokitua, Euskal Pilota eta Herri Kirolak.

Nafarroa Arenako ekitaldian Indurain Fundazioko ohorezko presidente Miguel Indurain, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol kontseilari Rebeca Esnaola eta Indurain Fundazioko kudeatzaile Ernesto Modrego egon ziren.

Beka jaso duten 160 kirolariren artean hiru sakandar daude. Hirurek Kirol Olinpiarrak programaren barruan jaso dute laguntza. Hiru onuradunak June Kintana Larraza disko jaurtitzaile bakaikuarra (7.786), Ioseba Fernandez Fernandez irristalaria (2.920) eta Irati Irigoien Crespo taekwondolaria (1.947) izan dira.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Muskaria	1-2

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	32
9	Lagun Artea	13

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:30 Erriberri - Lagun Artea *(Zelai Berri)*

Lagun Arteak Erriberri aurkari

Lerinésen kontra atzeratutako partida 1 eta 2 galdu eta gero, Erriberri du zain.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Castejón - Altsasu	10-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	33
10	Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Altsasu - Univ. Navarra *(Dantzaleku)*

Altsasu vs Universidad de Navarra

Altsasuk antzeko egoeran dagoen arerio zuzena hartuko du; ea aukerarik baduen.

FUTBOL PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagunak B - Etxarri Aranatz	2-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	33
13	Etxarri Aranatz	13

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Etxarri - San Jorge *(San Donato)*

Etxarrik San Jorge hartuko du

Sailkapenean hamazazpigarren den San Jorgeren kontra ariko da Etxarri Aranatz.

FUTBOL ERREGIONALA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Valle Aranguren	10-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Aurrera	26
3	Altsasu	22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

19:00 Asdefor - Altsasu *(Amigó)*

Altsasuren gol festak ea segida duen

Garaipen potoloa lortu eta gero, Altsasuk bederatzigarren den Asdefor du aurkari.

ARALAR MENDI

Derbia, Aralar Mendirendako

ARETO FUTBOLA Hirugarren mailako ligako azken jardunaldian, Aralar Mendik 5 eta 1 irabazi zion Xotari. Lehenengo itzulia bukatuta, Aralar Mendi zazpigarren da, eta Xota hamabigarren. Orain Kopan murgilduta daude bi taldeak. Aralar Mendik Anaitasuna hartuko du ostiralean 17:30ean, eta Universidad de Navarraren kontra ariko da Xota igandean, 16:00etan, Iruñean.

MENDIA

Mendigoizaleen Eguna, bertan behera

Joan zen urtean ez zen Mendigoizaleen Eguna antolatu, pandemiarengatik, eta gaur egungo egoera nola dagoen ikusita, igandean ospatu beharreko festa eguna bertan behera uztea erabaki du Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak. Hala berretsi du Mikel Goiaingerua Kofradiako lehendakari Jesus Mari Ustarrozek. "Hala ere, eta Santutegiak mendigoizale guztiekin duen lotura kontuan hartuta, iganderoko 12:30etako Aralarko ohiko meza elizkizuna urtean zendutako mendigoizale guztien aldekoa izango da" adierazi du Ustarrozek. Bide batez, kofradiatik Gabon zoriontsuak opa dizkiete sakandarrei eta Gabonetako elizkizunetan parte hartzera gonbidatu dituzte. "Urte Berri eguneko meza nagusi ospetsuan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, urte hasiera zoragarria izateko" azaldu du.

Bihar Sakanako Xake Txapelketa, Iturmendin

XAKEA Sakanako Mankomunitateak Zaldi Beltza Xake Taldearekin antolatutako txapelketa bihar jokatuko da, larunbata, 10:00etatik aurrera, Iturmendiko udaletxean. Izena ematea zabalik dago

Abenduan, Eguberritako bezperetan jokatzen da urtero Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Xake Txapelketa. Joan zen urtean ez zen jokatu, pandemiagatik, baina aurten bueltan da. Azken edizioa, 2019koa, Ziordiko Errekakartea elkarteak hartu zuen eta bertan 32 xakelari lehiatu ziren. Guztien artean, Orvina taldeko Haymar Leone gaztea gailendu zen.

Aurten Iturmendiko herriko etxean jokatuko dena txapelketaren 21. edizioa izanen da. Bihar, larunbata, 10:00etan hasiko da. Ohikoa denez, xake txapelketa antolatzeko, Sakanako Zaldi Beltza Xake taldearen eta Nafarroako Xake Federazioaren laguntza izan du Sakanako Mankomunitateak, eta baita Iturmendiko Udalaren babesa ere. XXI. Sakanako Xake Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izanen da, 1.900 ELO puntutik behera. Metodologiari dagokionez, txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatuko da. Sariei dagokienez, maila orokorrean lehenengo hirurek, gizonek eta emakumeek jasoko dute saria, eta gazteen mailako lehendabiziko biek. Txapelketa goizean hasten da, etenaldia egiten da bazkaltzeko, eta arratsaldean despeditzen da.

Azken edizioa Ziordian jokatu zen, 2019an. ARTXIBOA

Izena emateko

Izena ematea larunbatean bertan egin behar da, Iturmendiko udaletxean, 9:30etik aurrera (5 euro).

Altsasu Kirol Elkartea: 16 talde, 230 jokalari

FUTBOLA Altsasu Kirol Elkarteak abenduaren 8an, elurpean, aurkeztu zituen 2021/2022 denboraldiko futbol taldeak. Aurten 230 futbolari inguru trebatzen ari dira Dantzalekun, 180 gizonezko eta 50 emakumezko inguru. Aurrebenjamin mailatik hasita erregional mailaraino, hamasei futbol talde ditu Altsasuk, hamahiru gizonezkoenak eta hiru emakumezkoenak. Futbol koordinatzaile Imanol Lobok azaldu zuenez, une gozoan daude, erregional mailako taldea ongi dabilelako, historian lehen aldiz Ohorezko Maila Nazionalera igo den jubenilen lehen mailako taldea denboraldi ona egiten ari delako, futbolariak gogotsu daudelako eta aurreko denboraldiko geldialdiaren ondoren, aurten emakumezkoen talde nagusia berreskuratu dutelako. Kirolaren baloreak –adiskidetasuna, eurekiko eta arerioekiko errespetua, talde baten parte izatea…– sustatu nahi dituztela nabarmendu zuen, kategoria txikietan bereziki.

Sakanako hoberenak

Sakanako Mankomunitateak, gaur, ostirala, 19:30ean, Olaztiko Kultur Etxean 2019, 2020 eta 2021eko Sakanako Kirolaririk Hoberenen sari ematea egingo du. Guztira hamar sari banatuko dira

Maider Betelu Ganboa OLAZTI / SAKANA

Sakanako Mankomunitateak 2019, 2020 eta 2021eko Sakanako kirolari hoberenak sarituko ditu gaur, ostirala, 19:30ean Olaztiko Kultur Etxean eginen den ekitaldian. Sariketa, berez, joan zen urtean egitekoa zen, baina pandemiagatik urte bat atzeratu zen eta horregatik aurten azken hiru urteetako kirolari onenak saritu dira. Epaimahaiak hainbat sakandarrek sariketara egindako hautagaitza proposamenak aztertuta hartu zuen erabakia, eta nahikoa lan izan zuen, Sakanan kirolari bikainak daudelako, profesional asko tartean.

Epaimahaiak ondoko kategorietan izendatu ditu Sakanako kirolari hoberenak: 18 urtez azpiko gizonezkoak, 18 urtez azpiko emakumezkoak, 18 eta 35 urte bitarteko gizonezkoak, 18 eta 35 urte bitarteko emakumezkoak, 35 urte baino gehiagoko gizonezkoak, 35 urte baino gehiagoko emakumezkoak, kirol talderik onena eta euskara gehien bulkatu duen taldea. Horretaz gain, epaimahaiak bi aipamen berezi ematea erabaki zuen, haien merituak kontuan hartuta.

Hamar sarituak

Sakanako Mankomunitateko Amaia Gerrikagoitia Uriarte kirol teknikariak azaldu duenez, Kirol Zerbitzuan sariketarako hainbat hautagaien proposamenak jaso ziren. "Zorionez, Sakanan kirolari asko eta onak ditugu, ez dago hautagaitza faltarik, eta haiek aztertuta hartu zen erabakia" azaldu du.

Gaur, Olaztin, guztira hamar sari banatuko dira. Sei sari kirolari onenendako izango dira –Aimar Tadeo Arkauz lakuntzarra, Nahia Imaz Perez altsasuarra, Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarra, Irati Igoa Sesma etxarriarra, Josema Urrestarazu Zabalo altsasuarra eta Haizea Ramirez de Alda Pozueta altsasuarra–, bi sari taldeendako –Bargagain Taekwondo klubak talde onenaren saria jasoko du eta Triku Trail taldeak euskara gehien bulkatu duen taldearen saria–, eta, horretaz gain, bi aipamen berezi egingo zaizkie Imanol Arregi Sarasa Osasuna Magna Xota taldeko entrenatzaileari eta berriki munduko txapeldun izanda goi mailako irristaketa utzi duen Ioseba Fernandez Fernandez iturmendiarrari.

AIMAR TADEO ARKAUZ
18 URTE BAINO GUTXIAGOKO GIZONA

Sakana Group-Aralar Txirrindularitza klubeko txirrindulari lakuntzarrak 17 urte ditu. Errepideko lineako probetan lehiatzeaz gain, ziklo-krosean aritzen da. Kadeteen mailan hasi zen nabarmentzen, baina aurten mustutako junior kategorian iritsi dira bere lorpen nabarmenenak. Denboraldi hasiera nahiko kaxkarra izan zuen, lepauztaia apurtu zuelako eta alergia arazoak izan zituelako, baina Tadeok egoerari buelta eman zion eta denboraldi bukaeran hiru lasterketa irabazi zituen: Dicastilloko Saria erlojupekoa, Tafallako Urvaca Trofeoa eta II. Atarrabia Trofeoa. Horretaz gain, hirugarren sailkatu zen Indurain Saria lasterketa ezagunean.

NAHIA IMAZ PEREZ
18 URTE BAINO GUTXIAGOKO EMAKUMEA

Nafarroa Ermitagaña taldeko txirrindulari altsasuarrarendako azken bi denboraldiak bikainak izan dira. 2020an, kadete mailan, Nafarroako txapelduna izan zen hirutan: errepidean, erlojupekoan eta ziklo-krosean, eta Euskal Herriko Txapelketa eta Trofeoa irabazi zuen. 2021ean junior maila mustu du eta denboraldi ikusgarria egin du. Altsasuko 33. Burunda Txirrindulari Elkartea Trofeoa eta Iruñeko Itzuliko lehen etapa irabazi zituen, Nafarroako Erlojupeko txapelduna da, eta Espainiako Erlojupeko Txapelketan hirugarren. Bestalde, Espainiako junior mailako selekzioarekin Nazioen Kopako Tour du Gèvaudan Occitanie lasterketan aritu zen, eta irailean, Munduko Txirrindularitza Txapelketan parte hartu zuen, Flandesen.

BARGAGAIN TAEKWONDO KLUBA SAKANAKO KIROL TALDERIK ONENA

Nafarroako taekwondo talde onenetakoa da Gerardo Monterok gidatzen duen Bargagain Taekwondo Kluba. 2021ean Bargagaingo emakumeen junior eta kadete taldeak Nafarroako txapeldunak izan ziren, taldeka, eta Irati Irigoien eta Erkuden Moreno Nafarroako txapeldunak, euren mailatan. Espainiako Taekwondo Txapelketan Leire Etxanizek zilarrezko domina lortu zuen, Irati Irigoienek brontzezkoa eta zubian jokatutako Kluben Arteko Espainiako Txapelketan Erkuden Morenok brontzea lortu zuen, Zoe Martinek zilarra eta Irea Etxanizek haurren mailako urrea.

TRIKU TRAIL TALDEA EUSKARA GEHIEN BULKATU DUEN KIROL TALDEA

Etxarri Aranazko Triku Trail taldeak Triku Trail mendi lasterketa antolatzen du 2014 urtetik. 21 km eta 1.400 desnibel positiboa duen lasterketak hasieratik sekulako harrera izan zuen –berehala agortzen dira izena emateko tokiak–, eta taldeak euskarari ematen dion garrantzia agerikoa da. Taldeko kideak euskaldunak dira, erabiltzen dituzten euskarri guztietan –sare sozialak, kartelak, megafonia eta beste– euskarak lehentasuna du, eta proba euskalduna dela ez dago zalantzarik. Sakanako Trail Estazioa aurkezteko antolatutako apustuan ere, euskara izan zen nagusi.

IGOR ARRIETA LIZARRAGA
18-35 URTE ARTEKO GIZONA

Aurten Lizarterekin afizionatuen mailan debutatu du 19 urteko txirrindulari uharte arakildarrak eta primerako denboraldia egin du. Afizionatuen lehen lasterketa Iturmendin irabazi zuen, Nafarroako Errepide Txapelketa. Ondoren Loinaz Proba eta afizionatuen lehen itzulia, Volta Castelló, irabazi zituen. Espainiako 23 urtez azpiko erlojupekoko txapelduna da, eta Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketan lehiatu zen, Trenton. Kern Pharma talde profesionalarekin stagiaire gisa aritu zen Giro della Regionen, eta Pablo Urtasunek gidatzen duen taldea probako onena izan zen. 2022an Kern Pharman profesional izango da. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean hamaikagarren sailkatu zen.

IRATI IGOA SESMA
18-35 URTE ARTEKO EMAKUMEA

Kirolari todoterrenoa da 20 urteko etxarriarra. Batetik, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko palista da, eta baita Nafarroako selekzioko palista ere. 2019an Nafarroako Kluben Arteko Pala Txapelketa irabazi zuen Maite Ruiz de Larramendirekin, Euskal Herriko txapelduna izan zen Amaia Espinalekin eta 2019ko Sakanako Nesken Pala Txapelketa irabazi zuen Uxue Murillorekin. Aurten, 2021eko Espainiako Federazioen Arteko Buruz Buruko Paleta Goma Txapelketako txapeldunordea izan zen Valentzian, eta berriki Nafarroako Lehen Mailako Binakako Pala Txapelketako txapeldunordea izan da Uxue Murillorekin. Bestalde, Nafarroako Lehen Maila Autonomikoko Mulier futbol taldeko jokalaria da, taldeko zutabeetako bat.

IMANOL ARREGI SARASA
AIPAMEN BEREZIA

Osasuna Magna Xotako entrenatzaile irurtzundarra Espainiako Lehen Mailako entrenatzailerik onenetakoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Hainbat sari jaso izan ditu entrenatzaile onena izateagatik: Nafarroako Federazioak emandako bi sari, Nafarroako Gobernuak emandakoa, entrenatzaile onenaren bi Ramon Cobo sari, Entrenatzaileen Elkarteko bi sari eta Liga Nazionaleko Sari bat. Imanol Xotako atezaina izan zen 2000/2001 denboraldira arte eta 2001/2002 denboralditik Lehen Mailako Xotako entrenatzailea da. Talde ahaltsuenek fitxatu nahi izan dute, baina Imanolek etxean jarraitu nahi izan du beti. Baliabide gutxirekin talde bikainak sortzea da bere ahalmenetako bat.

JOSEMA URRESTARAZU ZABALO 35 URTE BAINO GEHIAGOKO GIZONA

Eskalatzailea, mendizalea, eskiatzailea, korrikalaria, txirrindularia... kirolari petoa da 52 urteko altsasuarra.

2020an *Basapiztien eremua* 9A mailako bidea kateatu zuen Etxaurin, 51 urte zituela, eskalatzaileen munduan eta giroan harridura eta miresmena sortu zuena. Bestalde, 2020an Ipar Eskian Espainiako hirugarren beterano onena izan zen. GUAIXEri azaldu zionez, bere buruari erronkak jartzea gustuko du, eta erronka horiek betetzen saiatzen da. Esaterako, 2019an 8B+ mailatik gorako 14 bide egin zituen, bi 8C+ tartean. "Kirola nire lana eta nire bizitza da" dio Urrestarazuk, zaletasuna izateaz gain, Gorputz Hezkuntzako irakaslea baita.

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA 35 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA

Haizea Ramirez de Alda Pozueta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko korrikalari altsasuarra da. Mendi lasterketetan aritzen da batez ere, baina errepideko lasterketei muzin egin gabe. Sakanako Emakumeen Atletismo Taldean trebatzen da taldea sortu zenetik, eta Sakanan antolatzen diren lasterketa gehienetan, bai mendi lasterketetan eta baita kros eta errepideko lasterketetan, ohiko partaideetako bat izaten da.

2021ean Dantzalekun jokatutako 34. Altsasuko Kroseko proba herrikoia irabazi zuen eta Bargagaingo Igoeran eta Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrian lehen sakandarra izan zen. 2019an laugarren emakumea izan zen Camille Xtremen.

IOSEBA FERNANDEZ FERNANDEZ
AIPAMEN BEREZIA

Azaroan Kolonbiako Munduko Txapelketan bosgarren aldiz munduko txapeldun izan eta gero, 32 urterekin eliteko irristaketa utziko zuela iragarri zuen irristalari iturmendiarrak. Palmares izugarria du: Munduko Txapelketetan urrezko bost domina, zilarrezko sei eta brontzezko sei; Europako Txapelketetan hamazazpi titulu; eta Espainiako Txapelketan 32 aldiz txapeldun izan da. Horretaz gain, munduko errekorrak ezarri ditu: 2012an 200 metrotan 15.879 segundokoa; 2012an 300 metroko erlojupekoan 23.938koa; 2018an 100 metrotan 9.684 segundokoa, urte berean 9.604ra jaitsi zuena eta 2019an, Marbellan, 9.55an egin zuena. 2012 urtetik ez da Munduko podiumetik jaitsi, azaroan bere ibilbideari agur esan arte, eta makina bat aitortza jaso ditu.

Irea Etxaniz, Bargagaingo Espainiako txapeldun berria

TAEKWONDOA Espainiako Kluben Arteko Taekwondo Txapelketatik hiru domina etorri dira Sakanara

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Bargagain Taekwondo klubak orain arte egindako denboraldi ona borobildu du, abenduko zubian Benidormen jokatutako Espainiako Kluben Arteko Taekwondo Txapelketatik hiru domina ekarri baititu.

Gerardo Montero Rivera entrenatzaileak azaldu duenez, txapelketaren maila "oso handia" zen. 2.000 taekwondolarik baino gehiagok hartu zuten parte. "Gure borrokalariek maila guztietan parte hartu zuten. Kategoria edo pisu bakoitzeko konbate asko gainditu behar ziren, sarritan lau erronda. Eta nabarmentzekoa da Bargagaingo neska-mutilek txapelketa bikaina egin zutela, maila handikoa" adierazi du.

Dominadunak eta irakasleak. BARGAGAIN

Erkuden Morenok brontzezko domina lortu zuen junior mailan, Zoe Martinek zilarrezkoa haurren mailan eta Irea Etxanizek urrezko domina haurren mailan. Bargagain faktoriatik sortutako beste perla bat da, bere ahizpa Leire Etxanizen atzetik. "Ireak jokatutako konbate guztiak nagusitasun handiz irabazi zituen. Bargagaingo gainontzeko guztiak ere oso ongi aritu ziren; soilik txapeldunen kontra galdu zuten" nabarmendu du, pozik.

Saioa Marroyo eta Andoni Baringo teknikarien lana eta Benidormera gerturatu ziren gurasoen inplikazioa eta laguntza eskertu du Monterok.

MARTIN EARLY

Ekain Imaz txapeldun Urdiainen

ZIKLO-KROSA Burunda klubak antolatutako Urdiaingo Ziklo-krosean lehiatu ziren txirrindulariek hotza, euria eta lohia izan zituzten bidaide. Kadeteetan Quesos Albenizko Ekain Imaz gailendu zen, Iker Gomez 8. eta Iker Begiristain 12. izan ziren. Juniorretan Beñat Fernandez (Zadorra) izan zen azkarrena eta Quesos Albenizko Mikel Unzilla hirugarren sailkatu zen.

Estarriaga eta Moreno ibarreko lehenak Zubeztian

ATLETISMOA Zubeztia elkarteak antolatutako 40. Oinezko Lasterketa Aitor Regillaga eta Maite Arraiza gipuzkoarrek irabazi zuten, eta proba hasi baino lehen berriki zendutako Candi Arnanzi omenaldia egin zitzaion

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Abenduaren 8an, zubian ateri egon zen ia une bakanetarikoan, jokatu zen Zubeztia elkarteak antolattako 40. Oinezko Lasterketa, Alberto Barricarte Oroimenezkoa. 148 korrikalarik hartu zuten irteera herrigunean prestatutako zirkuituari lau itzuli eman eta probak zituen 10 kilometroak osatzeko asmoz.

Eukeni Goikoetxea eta Ivan Sobredo altsasuarrak helmugara iristen.

Omenaldia

Lasterketa hasi baino lehen, lasterketa honen sortzaileetako bat izandako Candi Arnanz Garciari omenaldi xumea egin zitzaion. Arnanz azaroaren 15ean zendu zen, 89 urte zituela. Senitartekoek lore sorta jaso zuten eta aurreskua dantzatu zitzaien. Gaztetan korrikalaria izan zen Arnanz –18 urterekin Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Nafarroako taldean–, eta gero Nafarroako Atletismo Federazioko epaile, Altsasuko Kroseko sustatzailea eta nola ez, Zubeztiako probako bultzatzailea izan zen, besteak beste.

Zubeztia elkarteko lasterketak data borobila zuenez, 40. edizioa, lehendabiziko itzulia azkarren egiten zuenak sari berezia jaso zuen: Katealde produktuen saski ederra. Irteera oso azkarra izan zen, eta Aitor Regillaga tolosarra izan zen lehen itzulia azkarren egin eta proba irabazi zuena (31:58). Unai Ibarra arrasatearrari 3 segundo eskas aterata (32:01). Iñigo Garcia iruindarrak osatu zuen podiuma (32:36). Sakandarren artean helmugan zazpigarren iritsi zen Asier Estarriaga etxarriarra izan zen azkarrena (33:23), eta Aritz Etxeberria lehen altsasuarra, helmugan hamaikagarren (33:43).

Regillaga lehenengoz aritu ziren Altsasuko proban, baita emakumezkoetan gailendu zen Maite Arraiza lazkaotarra ere (36:30). Proba gustatu zitzaiola aipatu zuen, "bihurgune asko daudelako eta azkar joan ahal izateko erritmoa hartzea kosta egiten delako. Lau itzuli dira eta gogorra egiten da". Maria Ordoñez iruindarra izan zen bigarren (37:14) eta Diana Vecillas gasteiztarra hirugarren (37:33). Sakandarren artean Ines Moreno altsasuarra izan zen azkarrena, emakumezkoetan laugarren postuan (39:23).

Candi Arnanzi egindako omenaldia.

Sakandarrak 40. Zubeztia Lasterketan

Gizonak

1. Aitor Regillaga	31:58
7. Asier Estarriaga	33:23
11. Aritz Etxeberria	33:43
13. Eukeni Goikoetxea	34:11
14. Ivan Sobredo	34:11
29. Juan Carlos Gomez	36:48
32. Asier Pellejero	37:19
44. Asier Ansa	38:56
48. Imanol Guerrero	39:14
54. Unai Razkin	39:49
64. Alberto Arrizabalaga	41:12
76. Asier Larrion	42:07
77. Imanol Guerrero	42:09
81. Jon Iturrioz	42:22
86. Santi Agirre	42:40
89. Francisco Gomez	42:59
90. Antton Zelaia	42:59
94. Luismi Chaves	43:12
96. Peio Bergara	43:53
97. Iñaki Alvaro	43:53
98. J.Antonio Salgado	44:04
101. David Oroz	44:58
104. Ismael L. Goikoetxea	45:15
106. Mikel Senar	45:41
107. Juan Pedro Ariz	45:44
115. Xabier Lopez	48:05
116. Alberto Agirre	48:07
124. Joxeja Maiza	48:56
128. Jesus Sayas	50:03
145. Alfredo San Felipe	59:15

Emakumeak

25. Maite Arraiza	36:30
49. Ines Moreno	39:23
62. Haizea Ramirez de Alda	41:05
125. Maite Zabaleta	48:56
131. Amaia Oiarbide	51:48
147. Esti Mateos	1:04:25
148. Izaro Goikoetxea	1:04:25



Castillo Suarez Garciaren 'Elurra elurraren gainean' liburua.

Testu galduen bilduma

Castillo Suarez Garcia idazle altsasuarrak 'Elurra elurraren gainean' liburua aurkeztuko du igandean, Altsasuko Haritza tabernan. Omenaldi eta ekitalditarako "enkargatutako" testuak biltzen ditu liburuak

Eneida Carreño Mundiñano / Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Elurra Castillo Suarez Garciaren testuetan askotan agertzen den elementu bat da. "Gainera, iruditzen zait modu kontrajarrietan erabili izan dudala ere". Elurrari egiten dion erabilpenak tesi doktoral baterako emanen lukeela iruditzen zaio altsasuarrari. Sinbolo hori erabili du liburu berriaren izenbururako: *Elurra elurraren gainean*. Liburuan hamalau poema agertzen dira, garai desberdinetakoak eta beraien arteko lotura bakarra "enkarguzko poemak" direla da. Omenaldietan, ekitaldietan, hiletetan eta abarretan irakurri diren testuak dira. "Ni naiz testuen arteko lotura".

Liburua "bitxikeri" bat bezala deskribatu du idazleak. "Etxeko liburu bat da. Liburu ilustratu bat da; helduendako liburu ilustratu bat hamalau poema biltzen dituena". Txakur Gorriko neskek ilustratu dituzte poemak, eta guztiak euskarazko poemak dira, baina Fernando Reyk gaztelaniara itzuli ditu ere. "Luxuzko edizioa dauka". Igandean, abenduaren 19an, 17:00etan, Altsasuko Haritza tabenan *Elurra elurraren gainean* liburuaren aurkezpena eginen du. Bertaratzeko aurretik Suarezi abisatu behar zaio. Suarezekin batera Rey egonen da, poemaren bat irakurriko dute eta bakoitzaren esanahia azalduko dute, "bakoitzak baduelako bere istorioa". Eskerrak eman nahi dizkie ekitaldia posible egin dutenei ere, Igor Mintegi, "bere etxea uzten didalako" eta Helena Aldasorori "logistikarekin laguntzeagatik".

Liburu berezia

Otsaportillon irakurtzeko testuak, omenaldietan, hileta pare bat daude, baita *Denbora eta tokia gurutzatzen direnean* **GUAIXE**ren 25 urteurrenerako idatzitako testua ere, besteak beste, irakur daitezke liburuan. "Alde horretatik, testu bereziak dira". Argitaratu gabe egoteak "pena" ematen zion, eta bereziak zirenez argitalpen berezia merezi zutela uste zuen Suarezek ere. "Horretara Fernando Reyk animatu ninduen. Haietako batzuk itzuliak zituen batzuetan ekitaldiak elebitan direlako, eta berak esan zidan denak itzuliko zituela eta ea zer iruditzen zitzaidan argitalpen bat egiten bagenuen modu bikain batean".

'ELURRA ELURRAREN GAINEAN' LIBURUA IGANDEAN AURKEZTUKO DU CASTILLO SUAREZEK

Liburuaren bigarren berezitasuna da Suarez bera dela editorea. "Testuaren edizioaz Fernando Rey arduratu da, maketazioaz Elkar argitaletxea eta testuak Reyrenak eta bionak dira; baina ekoizlea ni naiz". Oso proiektu garestia dela azaldu du Suarezek, "eta iruditzen zait argitaletxe batek ez luketela hartuko. Konturatu behar gara zenbat garestitu den materialen prezioa eta zer zaila den liburu hau argitaratzea". Hasieran paperik ez zegoen, gero kartoirik ez zegoelako eta gaur egun aleak Zaragozan omen daude ez dagoelako ekartzeko garraiolaririk. "Oso konplikatua izan da hau ateratzea". Editorea izateak ere alde onak ditu: "Gauzak nik nahi izan dudan bezala egin dira". Baina autoedizioa ez lukeela berriz egingo aitortu du Suarezek.

Enkarguak

"Hori da nire bizitza. Beti prest edozerri idazteko. Kantuak egiten ez dakit, salbuespena Nafarroa Oinez izan zen, eta berriz egingo ez nukeena. Baina batzuetan eskatzaileari ezin zaio ezetzik eman. Beti atera da zerbait". Gerran eraildakoen omenaldietan, Otsaportilloko omenaldietan, mota askotako ekitaldietan, baita hiletetan ere irakurtzeko testuak bildu ditu eta aitortu duenez, berarendako zailena Jon Barberenari lur eman ziotenean irakurtzeko idaztea izan zen. "Oso harro nago testu horretaz. Iruditzen zait askotan hildako jendeari ez diegula esan maite ditugula, eta ondoren idazten ditugula gauza ederrak. Liburuan badaude bizirik dagoen jendeari eskainitako testuak ere, eta iruditzen zait hori ere polita dela. Jendea aurrez daukazunean maite duzula esatea". Jon Barberenaren kasuan "hamaika aldiz" esan zuten elkar maite edo miresten zutela. "Konstatazio bat zen". Testu hori irakurtzean aurkezpenean emozionatuko dela uste du Suarezek.

AUTOEDIZIOA IZAN DA, ETA IDAZLEAK ESAN DUENEZ OSO ZAILA IZAN DA AURRERA ATERATZEA

Jon Barberenaren kasuan nik uste hamaika aldiz esan genuela elkar maite genuela edo miresten genuela elkar. Hori zen konstatazio bat. Nik uste emozionatutako naizela".

Tximeleta

Izenburua *Elurra elurraren gainean* bada ere, liburuaren azalan ez da elurra agertzen; gaueko tximeleta bat agertzen da. "Txakur Gorriko neskei enkargua egin nienean, eta ilustrazioak behar nituela esan nienean, askatasun osoz jokatzeko esan nien; ez nuela nahi ilustrazioak testuan esaten zenaren isla izatea". Batzuetan irudiak testuarekin zerikusirik ez duela eman dezake, "baina badauka". Azaleko irudiak, gainera, azken poemarekin bat egiten du.

Proiektua hasi zutenean hamabi poemez osatuta egon behar zuen, baina gero "egon behar zuten" bi testu gehiago sartu zituen: "Fran Baldarena iruditzen zitzaidalako sartu behar zela nortasun handiko pertsona izan delako Sakanan eta arrasto handia utzi duena, eta berak eskatutako testu bat zegoelako ere, eta Martin Ugalderi buruzko testu bat. Enkargu bat izan zen, ekitaldi batean irakurri nuena, eta politikari batzuei gustatu ez zitzaien politikoegia zelako". Zentsuratua izan zen, baina "Martin Ugaldek merezi zuen testu hori nonbaiten agertzea. Zer dago politikoagoa egunkari nazional bat egitea baino".

Amets Arzallus Antia Iortia kultur gunean.

Txosten bat liburu bihurtuta

Amets Arzallus Antiak Mohama Ibrahimaren istorioa idatzi du 'Miñan' liburuan, eta asteartean Altsasuko Iortia kultur gunean liburuaz aritu zen Sakanako Mankomunitateak eta AEK Itsasi euskaltegiak antolatutako solasaldian

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Miñan liburuak Mohama Ibrahimaren istorioa kontatzen du. "Egileak bi gara. Berak eskuz ez badu idatzi, ahoz idatzi du, Berak bizi du, gogoratu du eta kontatu du. Berak erakutsi du nola kontatu". Amets Arzallus Antia kazetaria eta bertsolaria, beraz, Ibrahimaren eskuak izan da istorioa kontatzeko. Hasiera batean *Miñan* ez zen liburu bat izan behar ere. Ibrahimak asiloa eskatzeko txosten bat bezala sortu zen; argitaratu eta bi urtetara "hamahiru edo hamalau edizio" egin dira eta hainbat hizkuntzatan publikatu da, tartean gaztelania, katalana, italiera eta galegoa.

Sakanako Manomunitateko Euskara zerbitzuak eta AEK Itsasi euskaltegiak gonbidatuta Arzallusek *Miñan* liburuaz hitz egin zuen, asteartean, Iorti kultur gunean egindako solasaldian. Ibrahimaren eta Arzallusen arteko harremana ulertzeko, Irungo eta Hendaiako egoeraz hitz egin zuen idazleak. Hendaiarra izanda Irun eta Hendaia artean hanka bana oso naturala izan da berarendako, eta migrazioaren fenomenoa betidanik egon da, "migratzaileen jatorria aldatu da", duela hiru urte Irunetik iritsi eta Irunetik ezin pasa kalean gelditzen diren "migranteen pausua trabatuta eta zauritua" handia dela azaldu zuen.

Egoera horren aurrean Irunen Irungo Harrera Sarea boluntario taldea sortu zen. San Juan plazan, udaletxearen aurrean, mahai bat jartzen dute egunero, eta helburu nagusia migratzaileei informazioa eta orientazioa ematea da. Arzallus bertan aritzen da ere. Irungo Harrera Sareko boluntarioek egunero tren geltoikitik eta mugaren ertzetatik bueltatxo bat egiten dute iritsi berriei bilerak egiten direla azaltzeko eta bertaratzera gobidatzeko. "Informazio eman, non dauden azaldu, plazatik mugara bost minutu daude eta bidea erakusten zaie, autobusen lineak noiz pasatzen diren, Gurutze Gorria non dagoen bertan lo egiteko eta jateko aukera dutelako…".

Duela hiru urte

2018eko urrian Arzallus iritsi berriei Sarearen berri emateko tour txiki hori egiten ari zela Ibrahimarekin topo egin zuen. Sandaliak zeramatzan, urrian. "Erraza da jakitea iritsi berriak diren. Okertu zaitezke, baina normalean nabaritzen da". Ibrahima Almeriatik sartu zen Europara, hilabete batean Cadizera eraman zuten eta handik autobus batean Bilbora. Euskal Herritik Frantziara zeharkatu nahi zuen. "Ez Ibrahimak bazekielako nora joan nahi zuen, gehienek badakite, baina batzuk noraezean iristen dira eta inertziari jarraituz eta bidean egindako lagunen norabidea jarraituz joaten dira".

Hendaiara iristea lortu zuen behin, eta Baionarako autobusa itxoiten ari zela, poliziak hartu eta Irunen utzi zuten berriro. "Renfeko tren geltokian zegoen eta gerturatu nintzen azaltzera boluntario talde bat badagoela eta nahi bazuen hurbiltzeko. Esan zidan gure taldea ezagutzen zuela duela bi egun iritsi zelako eta telefonoa kargatzera etorri zela geltokira. Baina bertan zeuden gehienak iritsi berriak zirela eta nahi banuen lagunduko zidala haiengana gerturatzen". Arzallusek laguntza eskaini zion, eta Ibrahimak Arzallus lagundu zuen. "Horrela ezagutu nuen".

Ahozko literatura

Ibrahimak Irunen gelditzea erabaki zuen, Sareak eskainitako informazioa entzun ondoren. "Nola erabakitzen du pertsona batek Irunen gelditzea? Muga non dagoen azaltzen zaie, autobusen ordutegiak eta abar. Baita Espainian hasi behar dutela bere bide legala; itxaropenerako bidea dela asiloa eskatzea". Irungo Harrera Sarea apirilean martxan jarri zenetik urte bukaerara arte 10.000 pertsona pasa ziren. Urte horretan, 2018an, pertsona horietatik hogei pertsonak eskatu zuten asiloa. Asiloa iritsi diren herrialdean eskatu behar dute.

Asiloa eskatzeko Irungo kasuan Donostiako polizia nazionalaren komisaldegi batean eskatu behar dute. Prozedura legala egiten hasten dira. Boluntario taldean ere badago horretan aditua den jendea, eta laguntzen diete. Eskatu eta hamar hilabetetara haien istorioa azaltzeko eta babes eskaera egiteko arrazoiak eman behar dituzte polizia baten aurrean. Prozesua luzatzearen "abantaila" da aterpetxe bat eta janleku bat eman behar dietela. Hilabete horietan ahoz poliziaren aurrean kontatu behar zuen "bizitza eta zauria" prestatzeko elkarrizketak egiten hasi ziren. "Paper batean emango genien toxstena euskarri hori ere izateko". Hiru hizkuntzatan aurkezten zuten txostena.

"GAUZA GOGORRAK KONTATZEKO MODU HARRIGARRI EDERRA ZEUKAN"
AMETS ARZALLUS

Ibrahima bere istorioa kontatzen hasi zen, "lehenengo aldian ez duzu horrela botatzen, gauzak uzten dituzu, modu desordenatuan kontatzen dituzu…". Baina lehenengo egunetik esan zion "Ni Europan nago baino nik ez nuen Europan egon nahi". Migranteak ikusteko modua aldatu zitzaiola azaldu du Arzallusek. "Interes bat bazegoen, jakinmina eta kezka. Entzun nuenean hizketan nola hitz egiten zuen, hitzak, aditzak, esaldien luzera, isiltasunak, metafora bat tarteka… Harrituta utzi zidan. Harrituta eta harrapatuta aldi berean". Gauza gogorrak kontatzeko modu harrigarri "ederra" literaturaren aldetik. "Pertsona bat ia idazten ez dakiena baina beste alfabeto bat eta beste literatura bat erabiltzen duena, pentatsatzen dut bere jatorrizko hizkuntzako ahozkotasunagatik". Istorioa bat zegoen, ahots bat, estilo bat oso berezia zena zegoen. "Pertsona honek badauka zerbait berezia".

Liburua

Hala ere, Ibrahimak kontatzen zuena oraindik ere poliziaren aurrean azaltzeko eta entregatzeko txostena osatzeko zen. "Ez da imajinazio asko behar jakiteko ezezkoa emango ziotela. Beste batzuek froga eta dokumentuekin atzera botatzen dituzte. Berak bere istorioan ez zuen esaten ihes egiten zuenik bere bizitza arriskuan zegoelako, ez zelako bere kasua". Ikusita kalean gelditzeko zela "zerbait gehiago" egitea pentsatzen hasi zen. "Komisaldegi barruan sentsibilitate apur bat mugitzeko, behintzat".

Txosten bat izatetik liburua izatera pasa zen. Hasiera batean autoekoiztea pentsatu zuen Arzallusek, eta, ondorioz, salmentarako "beste bide" batzuk hartu, "top manta, adibidez". ISBN zenbakia eta guzti ordainduta dagoela azaldu zuen. Autoekoizpenerako dena prest zegoen, "buruari bueltak ematen ibili ginen". Orduan, lana bi lagun idazleri eman zien: Eider Rodriguez eta Lander Garro. Haiek esan zuten merezi zuela eta argitaletxe batekin harremanetan jarri behar zela. Susa gomendatu zioten.

Toureren zortzigarrena

Madrilgo Lavapies auzoan kokatu du Jon Arretxek 'Dortokaren begirada' liburua. Parisen egon ondoren, egoera berriak biziko ditu sasi-detektibeak. Parisen lapurtutako bitxiak dira trama pizten dutena

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Bilboko San Frantzisko auzoan hasi, Afrikara itzuli, Nafarroako Pirinioetan egonalditxo bat egin eta handik Parisera bidaia egin zuen Tourek. Zortzigarren nobela Madrilen girotu du Jon Arretxe Perez Arbizun bizi den idazleak, Lavapies auzoan, hain zuzen ere. Tourek harribitxi batzuk lapurtu zituen Parisen eta Retiro parkean ezkutatu ditu. Baina norbaitek lapurtu ditu; horien ordez, ezkutalekuan dortoka bat mezu misteriotsu batekin agertu da. *Dortokaren begirada* liburua Durangoko Azokara begira aurkeztu zuen Arretxek, abenduaren 2an, Uxue Razkin Ereingo editorearekin batera.

19 kamera, *612 euro*, *Hutsaren itzalak*, *Estolda jokoak*, *Sator lokatzak*, *Ez erran deus*, *Mesfidatu hitzez* eta, zortzigarrena, *Dortokaren begirada*. Toureren zortzigarrena aurkeztu du Jon Arretxek. "Niretzako esperimentu bat, proba bat, izan zen". Ez zekien istorioak zenbat ale izango zituen, baina saga bat egin nahi zuela bazekien. "Aurretik nobela beltz batzuk idatzita neuzkan, denetan protagonistak akabatzen nituen, eta jende askok esan zidan pertsonaia bat sortu behar nuela, eta serie bat egin. Tourerekin probatzea erabaki nuen". Pertsonaiak harrera ona izan zuen, eta idazlea ere gustura gelditu zen. "Toureren bizitza pixka bat luzatzea erabaki nuen". Dagoeneko "ente" bat bihurtu da, editoreak azaldu bezala.

Jon Arretxe idazlea 'Dortokaren begirada' lan berriarekin. EREIN

Lavapies

Oraingoan Toure Madrilera joan da, "gustuko hiria dudalako. Ez zait gustatzen nork agintzen duen eta zelako iritziak dauzkaten, baina hiria bera gustatzen zait: herria, jendea, ulertuta eta hiria bera ere bai". Hiri handia denez denendako lekua duela azaldu du, baita idazleari gustatzen zaizkion "gogoko lekuak" ere. "Ez dira izaten turistikoenak. Bilbon San Francisco, Parisera Barbes afrikarra edo Asiatikora eraman nuen Toure". Madrilen Lavapies auzoa gustatzen zaio Arretxeri, "oso leku aproposa Toureren nobela bat kokatzeko, eta aitzaki prefektua pertsonaiak Paristik ihes egin behar zuelako".

JON ARRETXE IDAZLEARENDAKO EZINBESTEKOA DA KRITIKA SOZIALA NOBELA BELTZEAN

Toureren mugitzeko behar hori ez da "apropos" izan. "Beti berdina edo antzekoa egiten aspertzen naiz, orduan, literaturan ere beharrezkoa nuen Toure mugitzea. Batetik bestera, baina gehien bat da bere izaeragatik". Pertsonaiaren buruaren barruan sartzen saiatzen da idazlea, eta egiten dituen gauzen ondorioz "nahiz eta nahiz ez" ihes egin behar duela azaldu du. "Berak ere esaten du nobelaren momenturen batean bere bizitza ihesaldi etengabe bat bihurtzen ari dela. Ea noiz topatuko duen toki bat han egoteko eta bere egoera normalizatzeko". Baina, ez. "Bere patua da, beti ihes ibiltzea".

Ongi egongo dela dirudien arren, azkenean beti konplikatzen zaio dena eta ihes egin behar du. "Nik uste bide hori interesgarriagoa izan daitekeela irakurlerentzat, barietate gehiago eta marko desberdinak ateratzen direlako". Madrilen badirudi estabilitatea lortu duela. Lehenengo aldiz dirutza du, eta apartamentu bat alokatu du. Aberatsak bezala bizi da. "Arraro sentitzen da. Bizi guztia miseriaz inguratuta ahal bezala bizirauten egon da, eta bat-batean dirutza dauka, bitxiak gordeta…". Istorioak lehenengo pertsonan kontatuta daude, eta Retiroko parketik paseatzen dabilenean neska txuri guapa batekin, bera etorkina, edo txalupa batean bueltatxoa ematen, terraza batean kaña erraldoi bat hartzen, "txuriz eta turistaz inguratuta". Horretaz asko filosofatzen du. Pertsonaiak eboluzionatu duela esan du idazleak, "beharrezkoa iruditu zait".

Kritika soziala

Toureren nobeletan gizarteko baztertuek protagonismoa hartzen dute. "Niretzako ezinbesteko osagarria da kritika soziala nobela beltzaren barruan". Gaur egun modan dagoen adarrak poliziakoa edo enigmakoak direla esan du idazleak, "errespetagarria da. Bakoitzak bere estilo propioa dauka, baina niri estilo horrek ez nau betetzen". Gaur egun kritika soziala egitea "beharrezkoa" ikusten du, mezu xenofoboak eta Europan eskuindarren ideiak asko zabaltzen ari direlako. "Asko kezkatzen nau, eta nobela beltzen bidez aukera dugu mezu horien kontra egiteko". Zortzigarrenean "inoiz baino gehiago" egon dela esan du.

Giro gordina erakutsi, umorea sartzeko kapazak eta biak ondo ezkontzen dituzten idazleak miresten dituela azaldu du Arretxek, Chester Himas kasu. "Bi osagarri horiek beharrezkoak dira". *Dortokaren begirada* nobelan umorea berreskuratu du. "Hasierako nobeletan oso presente zegoen umorea, baina bilakaera gogortasunera eta gordintasunera izan da, eta puntu batera heldu nintzen edo Tourek bere buruaz beste egiten zuen edo norbaitek akabatu behar zuen. Ez zen gogorragoa edo tragikoagoa izan". Zortzigarren honetan, beraz, bilakaera hori modulatu du eta umorea berreskuratu du.

Zortzigarren nobelan ere pertsonaia ezagun bat itzultzen da: Kristina. "Pertsonaia hori behar nuen. Lehenengo nobeletan in crescendo joan zen bere protagonismoa eta hirugarrenean ia protagonismo nagusia du". Toureren leku aldaketen ondorioz, Sa Kene ezin izan zen joan, eta orain berreskuratzeko aukera izan du. "Madrilera bisitan joaten da, eta biek batera daramate ikerketa". Berarekin beste azpitrama bat dago ere, beste misterio bat.

Bigarren mailako pertsonaiek ere protagonismoa hartzen dute, nahiz eta idazleak onartu duen, pertsonaia asko ateratzea zaila den irakurlearentzat. Kasu honetan Lavapiesek berak eman dizkio pertsonaiak. "Dokumentatzeko bertara joaten naiz idaztera, eta Lavapiesen egonaldi batzuk egin ditut".

Pantailara

Toure telesaila bihurtzeko prozesuan dago. "Idazleontzat edo honetaz bizi garenontzat gure pertsonaiak zinemara edo pantailara eramatea sekulako ilusioa izan da beti. Alde batetik, dirua da; bedeinkapen bat da diru hori bat-batean hartzea. Liburu asko saldu behar dituzu hori ikusteko. Bestetik, zure pertsonaia pantailan ikusteak ilusioa egiten du ere". Momentuz ezin du gehiegi kontatu, baina ekoiztetxe "oso handia" dagoela atzetik azaldu du. Kezka nagusia pertsonaiak eta tramak errespetatuko ote zituzten zen, "eta badirudi errespetatuko dituztela. Niretzako oso inportantea zen nobela hauen fondo eta giro sozial hori agertzea".

Pedro Mari Olea Armendariz, zurezko katxarroen egilea. ARTXIBOA

"Azoketan jendea ezagutzea gustatzen zait"

Bakaiku eta katxarroak. Herrian eguna ere badute haiei eskainia. Zurezko katxarroak egiten dituela dio Oleak, haurrendako jostailuak ikusi ditugu guk

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

1 Zura lantzen noiztik? Eta zergatik?
Urteak dira. Hasieran gauzak zintzilikatzekoren bat, edo kutxa txikiren bat egiten nituen, familiakoendako. Halakoak. Betidanik gustatu izan zait. Geneak? Ezagutu ez nuen aitona zurgina zen. Osabak erratzak egiten zituen, baina zurgina zen. Eta denbora pasatzeko. Jostailuak egiten bakarrik ikasi nuen. Tailatzeko ikastaro batean izena eman nuen Iruñean eta ez dakit lautan joan ote nintzen. Ama gaixotu zen eta utzi behar izan nuen.

2 Haurrendako jostailuak egiten dituzu. Zergatik?
Interneten, Pinterest-en, hasi nintzen jostailuak ikusten: arrastan eraman eta hankak mugitzen dituen martin saltakalaia. Horrekin hasi nintzen. Jostailuren bat egitea gehiago kostatzen zait, baina behin bat edo bi eginda, erraz egiten dira.

3 Zein ezaugarri izan behar du haurrendako jostailu batek?
Haurrendako deigarria izateko koloreak izan behar ditu. Eta zerbait mugitzen bada, hobe. Eta pieza txikirik ez izatea, haurrek traga ez dezaten. Hiru marran jokoaren aleren bat saltzen duzu, baina mugitzen diren gauzak gehiago saltzen dira.

4 Zuk diseinatzen dituzu?
Argazkiak ikusten ditut eta handik jostailua atera beharra dago. Klin-klan, klin-klan jaisten den hori... kosta zitzaidan hura funtzionaraztea! Afizioa izan behar da. Eta gustatu behar zaizu, probatzen aritzeko. Bestela, nire-nireak kamioia, orgatila eta halakoak dira, beti ikusi ditugunak.

5 Eta nola eramaten da buruan duzuna egurrera?
Ahalik eta errazen eta denbora gutxi eskatzen duen modu batean egitea da kontua. Pentsatu. Buruan izanda, pixka bat marraztu eta kitto. Papera, arkatza, erregla eta konpasa. Ez dakit ordenagailuz marrazten. Jostailu batzuk egiteari ez diot heldu, uff! Gehiagotan egin behar badut, txantiloiak egiten ditut. Hura zuraren gainean jarri eta moztea besterik ez baita egin behar.

6 Zein zura lantzen duzu?
Artisautzarako haritz zaharra. Haritz laminatua zerbait erabili dut. Eta gaztainondoa, pixka bat. Jostailuetarako pinua. Eta jostailuaren arabera, kontratxapatua, sendoagoak izateko eta ez hausteko.

7 Azoketan parte hartzeko pausoa zergatik eman zenuen?
Idoia Abad Olea ilobak gazteendako arropa egiten zuen. Eta azoketara biak batera joatera animatu ninduen. Hasi ginen. Eta, azkenean, ikusten duzu, artisautza lanak baino jostailuak saltzen direla. Jendeak jostailuak gehiago eskatzen ditu. Hasi eta bi hilabetera ilobak esan zidan berak ezin zuela segitu, bi haur izanda ezin zuelako azoketan ibili. Sei bat urte daramatzat azoketan.

8 Azoketan ibiltzen zara bakarrik?
Bai. Azoketara joan eta jendea ezagutzea gustatzen zait. COVID-19arekin azokarik ez da izan eta geldi egon gara. Garileko eta agorrileko larunbat guztietan Elizondon egon naiz. Azokaren bat edo beste egiten ari dira. Aurretik Elizondo eta Olloki ditut. Enkarguren bat edo beste jaso izan dut. Edo Facebook-en ikusi badute... Batzuetan jostailu bat ilusio handiz egiten duzu eta erretiratu beharra duzu jendeak kasurik egiten ez diola ikusten duzulako. Beste batzuei egun batean kasurik ez eta hurrengoan denak saltzen dira. Zaila da. Amak jostailuak erostea zailagoa da. Izeba edo amona bada, errazagoa. Aitaren batek ere erosten du seme-alaba isilik izateko, baina ez dira asko.

9 Zein da zurezko jostailuak saltzeko salmenta garai onena?
Eguberriak ez dira datarik egokienak. Haurrek nahiago dituzte argitxoak eta halakoak. Iragarkietan ikusitakoak. Proportzioan, urtean zehar jostailu gehiago saltzen ditut eguberrietan baino.

10 Zuk egindako jostailuekin "jolasten" zara, probatzeko?
Askotan. Egurrezko hegalak, makil bat, soka sartu, tiratu eta ea hegan egiten duen. Denak probatu beharra daude. Denak berdin egiten badituzu ere, batzuk hegan egiten dute, eta besteek ez.

11 Txikitan zerekin jolasten zinen?
Ez genuen jostailu askorik. Bost anai-arreba ginen, ni azken aurrekoa. Gogoratzen dut noizbait jostailuren bat eskatu, eta gurasoek iruditzen zitzaiena ekartzen zutela. Bestela, esaterako, etxe ondoan zegoen erreka batean sardina latekin jolasten ginen, ea zeinak egiten zuen laster gehien. Azkenean, pela-pela bukatzen genuen, baina, tira. Gauza askotan jolasten ginen, garaiko jolasak.